

Goierri

352. zenbakia 2008ko abenduak 17

Herriak Elkarlanean
**BEASAINDIK
MUNDURA
LAGUNTZA
BIDERATUZ**

faktore
URTEBERRI ON

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA
www.faktore.net



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

LEHENGO ETA ORAINGO GABON ABESTIEN BILDUMA



Goierriko hainbat herritan gabon giroan abesten diren kantekin hirugarren bildumatxoa osatu du HITZAK

Gabon kanten hirugarren liburuxka hau, eguberrietarako GOIERRIKO HITZAK prestatu duen abestien eta musika partituren bilduma duzu. Orain dela bi urte abiatutako ekimenari segimena emanez, hirugarren aldiz aterako da berrituta, osatuta, Goierriko kaleetara, etxeetara, eskoletara, elkartee-

tara... goierritarregana.

Urtean behingo erabilera izanagatik ere gogotik sustraitu dira Goierriko gizartearen kanta zaharrak, hizkuntzaren berpizkundearekin batera eskolen bidez zabaldu diren berriagoekin batera. Bilduma hau osatzeko, bai ahoz aho iritsi diren tradiziozko gabon abes-

tiak, baita berriagoak ere erabili ditugu. Goierriko herri desberdinetan abesten direnak gehienak.

Eguberri hauetan etxez etxe, baserriaz baserri, mahaiaren inguruan edo lagun artean kantuan aritzeko erabilgarriak izango dituzue lakoan. Gabon zoriontsuak eta Urte Berri on!

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behe

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Kolaborazioa: Xabier Mendiguren Elizegi.

6. Kolaborazioa: Igortz Badiola.

8. Ingurugiro txokoa: Kontsumo arduratsurako irizpideak.

10. Euskara txukuntzen: Ze hitz bai... eta ze hitz ez! (II)

12. Aholkua: Leiho isolatzaileak ezartzeko diru laguntzak.

14. Erreportajea: Herriak Elkarlanean Misio Taldea.

22. Erreportajea: Krisiaren eragina.

30. Kirola: Gorka Izagirre txirrindularia.

34. Goierritar berriak: Nordia Perez eta Victor Lezama nikaraguarrak.

38. Non zer.

42. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Xabier Mendiguren Elizegi

Garai bateko kontsumismo eder hura...

Urteak pasatu ditut Eguberriak zetozen aldiro kalamatrika bera entzuten: kontsumismo hutsa besterik ez dagoela bazterretan, Gabonen benetako espiritua guztiz galdua dagoela, gas-tua eta txorakeria nagusitu direla, poz behartua, sasimaitasuna, kaleko argi distiratsuak barreneko tristura edo ustela estaltzeko. Ezkertiarrek ikuspegi antikapitalista batetik botako zizuten diskurtso hori, eta kristauek ikuspuntu humanista edo fedezko batetik, baina ondorio apokaliptiko bera ateratzen zuten denek: gizar-te hau gainbehera doa, egiazko balioak galduak ditu, dirua dugu jainko bakarra eta anaitasunezko mezuak ez dira itxurakeria hutsa baizik.

Aurten, aspaldiko partez, badirudi krisi ekonomikoaren erdian iritsiko direla Eguberriak, eta ez dakigu gainera delako krisi hori zenbaterainokoa izango den, ezta noiz arte iraungo duen ere. Momentuz, baditu ondorio erreal eta ukigarri batzuk (langabeen kopurua gora hasi da, hainbat lantokitan erregulazio-hotsak aditzen dira), eta, askoz ere handiagoak, ondorio psikologikoak: jendea beldurtu egin da, geroak zer ekarriko, eta lehengo gastatze alai eta axolagabe horri freno jarri dio derrepente. Orain ez dira jatetxeak betetzen lehen bezala, gauetako tragoak xuhurragoak dira, errazago gelditzen da jendea etxean telebista ikusten, ez dugu kotxea kanbiatezen aurrekoa martxan dabilen bitartean, jantziak, opariak edo bidaiak eros-

tean gehiago begiratzen diogu prezioari, eta bi aldiz pentsatzen dugu produktu hori benetan behar dugun edo ez.

Hitz batean esanda, lehengo kontsumismo txoraa bukatu dela. Baina horra paradoxa, kontsumismoa apaltzeak arazo berriak sortzen ditu: denda asko ixteko zorian dira, jendeak nahiko gasturik egiten ez duela eta; etxegintzaren gelditzeak, igeltseroei bakarrik ez, beste hainbat gremiotako langileei ere egiten die kalte: elektrikari, linternerero, arotz, pintoreei (eta horientzako materialak egiten dituzten guztei); kotxerik saltzen ez bada, kontzesionarioetan ibiliko dira larri aurrena, baina baita auto-fabriketan ere, eta fabrika horientzako piezak egiten dituzten tailerretan, eta piezak egiteko makinak eraikitzen dituzten lantegietan, eta makinak nahiz piezak sortzeko altzairua posible egiten duten siderurgia-enpresetan, eta... Gurpil bat da sistema ekonomikoa, azkenean denok harrapatzen gaituena. Funtzionarioek bakarrik esan dezakete arriskutik libre daudela, baina produkzio-alor guztiak porrot eginez gero larri beharko lukete administrazioan ere beren soldatak ordaintzeko.

Imajinatu momentu batez, Gabon pobreak eta pobreen Gabonak iristen direla: aza plateretan, argirik ez kalean, kartapartida afalondan, ez baitago tabernetarako dirurik, eskuz egindako opari xumeak... Badu bere xarma, baina orduan ere kexa eta marmarra izango dira nagusi, eta guk, etxeko zaharrenek, gure garaiko kontakizunekin liluratu nahiko ditugu umeak: garai batean angulak jaten genituen gabonetan, eta turroiak eta txanpaina nahi adina, eta kale guztiak argiz beterik egoten ziren, eta tabernaz taberna ibiltzen ginen gero konbinatuak edaten, eta ondoren egun batzuetarako Pirinioetara joaten ginen eskiatzera edo Kanariatera eguzkitan etzatera, eta...

Purrustaka bada ere, Eguberri on.

Baina horra paradoxa, kontsumismoa apaltzeak arazo berriak sortzen ditu: denda asko ixteko zorian dira, jendeak nahiko gasturik egiten ez duela eta.



kutxa



facebook



O P T I K A

zorionak
urteberri on

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10
www.argioptika.com

E W M E

PRADA D&G VERSACE BURBERRY



ALTAMIR
JATETXEA



Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapore eta ukituz goza dezazuen.



zorionak
urteberri on

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net



facebook



Igortz Badiola (LAB)

Aplikatzen ari diren errezetek ez dute inola ere kontuan hartzen zein den arazo nagusia: ondasunen banaketa.

Euren krisia euren kontura

Azken hilabeteotan mundu guztia dabil krisia gora, krisia behera: komunikabideak, enpresariak, gobernu eta sasi-gobernuak... langileok oso aspalditik gaude krisi larrian, baina horrek, antza, ez du batere ardurarik. Orain denon lehenetsuna enpresen itzelezko irabaziak salbatzea izan behar omen da.

Badira erantzule politikoak, beren politika monetario, soziolaboral eta fiskalen bitartez egoera honetara bultzatu gaituztenak. Gobernuak kapitala gero eta esku gutxiagotan metatzeko prozesua lehenetsi dute, hori egitean desoreka nabaria sortuz ondasunen banaketan.

Oso esku gutxitan metatutako etekin kantitate izugarri horiek inbertsio espekulatioak garatzeko soilik erabili dira neurri handi batean. Honek eskariaren bidez konpentsa ezin daitekeen gehiegizko metaketari lotutako krisi bat ekarri dute; eskariaren jaitsiera familiek gero eta zor handiagoak dituztelako, lanaren prekaritatearengatik, espekulazio inmobiliarioarengatik eta jendarte babesaren murrizketarengatik eman da.

Aplikatzen ari diren errezetek ez dute inola ere kontuan hartzen zein den arazo nagusia: **ondasunen banaketa**.

Kapitalismoa birsortzeko beharraz hitz egitea metaketa kapitalistaren oinarriak aldatu gabe, zerbait egiten dela sinestarazteko baliabide propagandistiko hutsa da. Benetan egiten dena ezkatzen digute: politika publikoen eskutik galerak gizartratzea eta etekinak pribatizatzea.

Administrazio publikoaren "krisiaren aurkako" neurriak enpresarien aldeko eta langileen aurkako neurriak izan dira: hauen zergak murriztuz, gure diruaz azpiegitura erraldoiak enkargatu edota enpresak subentzionatu eta banku pribatuei diru publikoa ematea daukate helburu. Lehen esan bezala, diru irabaziak eurentzako gorde beti, baina galerak denon artean ordaintzea nahi dute.

Krisia gainditzea denon esku dagoela diote, langileok gerrikoa estutu behar dugula, krisiaren ondorioak geure ardura bailiran ari dira jokatzeko. Langileok ordea aspalditik gaude krisian, aspalditik dugu gerrikoa estuturik, hazkunde ekonomiko garaian ere halaxe egon baikara enpresarien gerria nola loditzen zen ikusten genuen bitartean: langileok gure soldatak pisua nola galtzen duten ikusi dugu, kontratuak gero eta miserableagoak direla eta gure lanpostuak gero eta ezegonkorrago eta prekarioago bihurtzen direla.

Orain eurek etekinak berdin mantenduz langileen eskubide eta lan baldintzak murrizteko baliatu nahi dute eurek sorturiko krisia: kaleratzeen bidez, soldaten izozte eta murrizpenekin, laneko esplotazioa igoz eta izaera sozialeko gastu publiko murriztuz.

Baina hau guztia ez da aldaezina. Langileok, pentsiodunak, langabezian daudenak, gazteak... honen kontra borroka egin dezakegu. Honen kontra borrokatu ahal eta behar dugu, lau lotsagabe zantar gure kontura nola aberasten diren ikusteaz nazkatuta eta nekatuta gaudelako.

Eredu ekonomiko, sozial eta politikoaren aldaketa ezinbesteko eta premiazkoa da. Euskal Herrian denok ondo bizitzeko behar besteko aberastasuna egon badago. Baina, horretarako, aberastasun hori modu justu batean banatu beharra dago, ekonomia pertsonen mesederako eta ez alderantziz planifikatu behar da, kalitateko zerbitzu publikoetan inbertitu behar da, beste batzuen artean hezkuntza, osasuna, babes soziala, edo etxebizitza eskubideak bermatu daitezkeen. Eta, jakina, hau guztia burutu ahal izateko, hau da, Euskal Herrian eredu ekonomiko, sozial eta politikoa gehiengoaren mesedetan kokatzeko ezinbestekoa zaigu erabakitze eskubidearen jabe izatea, eta bide horretan antolatuta eta borrokatzea.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



ORDIZIA OSASUN ZENTROA

Goierri kalea

Tel.: 943 16 40 48 · Faxa: 943 16 47 03

20240 ORDIZIA

MEDIKU KOADROA

FAMILIAKO MEDIKUNTZA <ul style="list-style-type: none">● Natasa Vujic Dr.● Mikel Ansa Dr.● Jorge Sampedro Dr.	TRAUMATOLOGIA <ul style="list-style-type: none">● Ines Burutaran Dr.● Jesus M^a Caminos Dr.	PSIKOLOGIA <ul style="list-style-type: none">● Montse Corghete
BARNEKO MEDIKUNTZA <ul style="list-style-type: none">● Javier Legarda Dr.● Begoña Inurrategi Dr.	ERREHABILITAZIOA <ul style="list-style-type: none">● Vanessa Bahon Dr.● Laida Artola Dr.	DIETETIKA ETA NUTRIZIOA <ul style="list-style-type: none">● Cristina Perez
NEUROLOGIA <ul style="list-style-type: none">● Juan Carlos Martin Dr.	UROLOGIA <ul style="list-style-type: none">● Dámaso Sanchez Dr.	PODOLOGIA <ul style="list-style-type: none">● Ioana Arbillaga
ALERKOLOGIA <ul style="list-style-type: none">● Maria Mar Del Castillo Dr.	GINEKOLOGIA <ul style="list-style-type: none">● Irune Alzola Dr.● Emilio San Pedro Dr.	FISIOTERAPEUTAK <ul style="list-style-type: none">● Eider Iturrospe● Ainhoa Cupido
DERMATOLOGIA <ul style="list-style-type: none">● Conchi Tamayo Dr.	ORL (sudur, eztarri, belarri) <ul style="list-style-type: none">● Luis Mutio Dr.● Julio Igartua Dr.	ERIZAINZAN DIPL. (ATS) <ul style="list-style-type: none">● Marivi Beriain● Arantzazu Balerdi
PEDIATRIA <ul style="list-style-type: none">● Juan Jose Idoeta Dr.● Adolfo Romano Dr.● Marcela Pérez Dr.	OFTAMOLOGIA (begiak) <ul style="list-style-type: none">● Mertxe Zabaleta Dr.● Alejandro Amias Dr.	ODOL eta PIXA ANALISIAK HORTZETAKO ERRADIOGRAFIK ERRADIOGRAFIA OROKORRAK
PSIKIATRIA <ul style="list-style-type: none">● Loudes Del Campo Dr.	KIRURGIA OROKORRA <ul style="list-style-type: none">● Juan Kerejeta Dr.	EKOGRAFIK (3D eta 4D) MAMOGRAFIK
KARDIOLOGIA <ul style="list-style-type: none">● Alberto Izagirre Dr.	ENPRESEN AZTERKETA MEDIKUAK	GIDATZEKO ETA ARMENTZAKO AZTERKETA MEDIKUAK

Hitzordua aldez aurretik
943 16 40 48

Kontsumo arduratsurako irizpideak

Gainean ditugu Gabonak, gehien kontsumitzen dugun sasoietakoa bat. Horregatik oso garai egokia da kontsumo eredu arduratsua goetzeko hausnarketa egin eta iraukorrak ez diren ohiturak zuzentzeko.

Bizi garen kontsumo gizarte honetan gure erosketak eragin handia du gure inguruan eta baita urrutiko herrialdeetan ere.

Gaur egun edozein garaiko elikagaiak jan ditzakegu, hemengoak edo kanpoak eta ekintza honek nekazaritzan eta abeltzaintzan aldaketak behartu ditu. Geroz eta ongari, pestizida eta fitosanitario gehiago erabiltzen dira lurra eta animaliak hazteko, kutsadura eta osasun arazoak sortuz. Gainera hegoaldeko herrialde askok gure elikagaiak ekoizten dituzte beraien beharrak ase ordez, desoreka handia sortuz ekosistema eta gizartean.

Bestalde energia eta uraren kontsumoa ere asko igo da, energia ugari xahutzen dugularik. Etxeko tresna elektriko guztiak ez dira beharrezkoak. Arduratsua izan beharko genuke uraren eta energiaren erabilerakin. Behar direnean

erabili eta bestela itzaldtu edo iturria itxi.

Neurrigabeko kontsumo honek ere bistakoa den ondorioa du, zaborrak. Besteak beste, produktu askok apaintzeko materiale ezberdinak dituzte, kalitatean eraginik ez dutenak beraz alferrikakoak.

Jarraian, kontsumo arduratsuen alde egiteko irizpideak dituzue.

1. Publizitatearekiko kritikoak izan. Zure kontsumoa murriztu. Erosketak egiteko garaian zein behar ditugun hausnartu, ez erosi erosteagatik edo publizitatearen eraginez.
2. Gure dirua kudeatzera koan gure printzipioekin koherenteak izan.
3. Ondareak eta zerbitzuen eragin sozial eta ingurumenarekikoetaz informazioa bildu. Kontsumitzaile bezala informatzeko eskubidea dugu. Non egin dago, nor eta nola egin du, transgenikoak ote dituzten... etiketak irakurri eta dendariei ere eskatu nahi duzun informazioa.

4. Gure tresnak ondo zaindu gehiago iraundera dezan. "Erabili eta bota" ohitura ez da batera jasangarria. Natur ondare eta energia asko alperrik xahutzen da. Gainera zabortegiak bete-beteta ditugu jadanik.

5. Lehengaiak agortzen ari direnez alternatibak bilatu ustiatetarako txikiagotzeko. Trukeak, tresnak konpondu, berrerabili,...
6. Nolako komertzioak nahi ditugun erabaki. Bidezko merkataritzako produktuak, bertako elikagaiak, ekologikoak, kontsumitu ditzakezu.
7. Gure erosketen kalitatea bermatu, osasuntsuak izateko eta luzaro irauteko.
8. Birziklatu. Erabil ezin daitezen gauzak edukiontzia egokietara bota, birziklatzeko.
9. Kontsumitzeko antolatuta, horrela erreklamazioak egiteko gure eskubideez baliatuz.

Bizi kalitatea ez da kontsumo arduratsuekin galitzen. Bizi kalitatea hobea da materialismoa murrizten badugu eta gizatasuna lantzen badugu.

"Oparotasunak pobre egin ninduen" Ovidio.
www.mundosolidario.net
 Koro Irazustabarrena Genaut

JAKIN BEHARREKOAK

Primateen erdiak desgertzeko arriskuan datozen hamar urteetan. Nazioarteko Primatologia Elkartearen 12. Biltzarrean jakitera eman dute. Bi faktore nagusi aipatu dituzte: habitaren suntsipena eta ehiza (jateko nahiz medikuntza tradizionalerako).

"La Revolución de una brizna de paja". Masanobu Fukuoka. Aurten hil den autore japoniarra permakulturaren aintzindari handienatarikoa izan da. Honez gain, Tao jakintsua, poeta, baserritarra, filosofoa eta nekazaritza naturalaren sortzailea izan da.

246 Caretta dortoka jaino dira Cabo de Gata Parke Naturalean, Almerian. Mehatxaturik dagoen dortoka hau berriz Europako kostaldean ekartzeko ekintza baten barruan, Cabo Verdetik 1.400 arrautza ekarri ziren irailean. Mila arrautza Kanariar uhartera eraman zituzten eta 400 Andaluziara.

WEB GUNEA

www.sembradoresurbanos.org orrialde honek Ciudad de Mexikoko hiru emakumeek osatzen duten taldearen lanaren berri ematen digu. Zaborra eraldatuz lur emankorra, elikagai osasuntsuak eta diru iturri hiriaren barruan lortzea dute oinarri. Hiri nekazaritzako tailerrak, eskoletako programak eta abar martxan jarri dituzte bollerarioen laguntzarekin. Sendabelarrak, elikagaiak eta lore jangarriak ekoizten laguntzen dute.

Bizi garen kontsumo gizarte honetan gure erosketak eragin handia du gure inguruan eta baita urrutiko herrialdeetan ere.



Landarlan taldeak egindako orrialdea
 Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteren bat bidali nahi baduzu:
 ☎ 943 16 12 44 - landarlan@yahoo.es

Zorionak eta urte berri on!!

**SASIETA
MANKOMUNITATEAK**
eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizue.

2009an ere, orain arte bezala,
zuekin elkarlanean jarraitzea
espero dugu.

Gogoratu, urtero bezala,
jaien ondoren gabonetako
PINUEN BILKETA egingo
dugula konposta bihurtzeko.

*Traste zaharren egunean atera
behar dira.*

www.sasieta.net



SASIETA
MANKOMUNITATEA

PITAS  PITAS®

Arrautzak eta Bere Elikagaiak

Gorrotxategi Oilategia E.A.
Bikuña, 19. 20213 Idiazabal (Gipuzkoa)
Telf.: 943 187 676 Fax: 943 187 661
e-mail: luis@avicolagorrotxategi.com
web: www.huevospitas.es

GORROTXATEGI
IDIAZABAL

Ze hitz bai... eta ze hitz ez! (II)

(Euskara batuan)

Maizpide
euskaltegia

Euskara batuan zuzenak izan ez arren, badira zenbait hitz, hainbat arrazoi direla medio, behin eta berriro erabiltzen ditugunak. Zein hitzez ari garen jakin dezazuen, erreparatu eskuineko zutabeari (ezkerrekoan forma zuzena agertzen da).

✓ Zuzen	✗ Oker
Ukuilua	.Ikuilua
Burdina	.Burnia
Adina	.Aina, Haina
Arrabioa	.Arrubioa
Bereizi	.Bereiztu
Beldurra	.Bildurra
Arropa	.Erropa
Jenerala	.Generala
Amuarraina	.Amorraia
Biraoa	.Blasfemia
Eskailera	.Eskilara
Guardia Zibila	.Goardazibila
Entseatu	.Entseiatu
Gutizia	.Kutixia, Kutizia
Garatu	.Desarroitatu
Altzaria	.Haltzaria
Titarea	.Ditarea
Eduki	.Euki
Burruntzalia	.Burduntzalia
Fraidea	.Frailea
Mahai-Futbola	.Futbolina
Galdera-Marka	.Galdeikurra
Igeltserotza	.Igeltzaritza
Erdara	.Erdera
Galtzada	.Kaltzada
Intsektua	.Insektoa
Landarea	.Landara
Zerbitzaria	.Kamareroa
Agiria, Baimena	.Karneta
Igarri	.Igerri

Kikildu	.Kokildu
Garatxoa	.Karatxoa
Kalkulagailua	.Kalkulamakina
Monasterioa	.Monastegia
Ahotsa	.Abotsa
Elkar	.Alkar
Apustua	.Apostua
Gasolioa	.Gasoila
Igogailua	.Aszensorea
Sumendia	.Bolkana
Inauteria	.Ihauteria
Albaitaria	.Beterinarioa
Hausnarketa	.Erreflexioa
Eraikina	.Edifizioa
Armada	.Ejerzitua
Borroka	.Burruka
Etsamina, Azterketa	.Examina
Aizkora	.Haizkora
Marrazkia	.Dibujoa
Harribitxia	.Harri Bitxia
Izaera	.Izakera
Erabakigarria	.Erabakiorra
Immunitatea	.Inmunitatea
Erlezaina	.Erlazaina
Garabia	.Grua
Igeltseroa	.Igeltzaria
Euskara	.Euskera
Galdara	.Kaldera
Kardinala	.Kardenala
Itsaslasterra	.Itsas Korrontea
Azalorea	.Koliflore
Kanabera	.Kainabera
Kontsokratua	.Konsagratua
Errepidea	.Karretera
Koilara	.Kutxarea, Goilarea
Laurehun	.Larehun

Fraideek baimena ematen badidate, asteburua monasterioan emango dut. Ez dago, bestela, babalore hau jasango duen kristaurik!

Kanaberaren amuan beita jarri nuen, intsektu polit askoa. Handik gutxira izugarritzko amuarraina ikusi nuen zintzilik, baina ni ez nintzen kikildu eta, biraorik bota gabe, gogor eutsi nion. Orduan...



Demetrio erlezaina psikologoarenean...

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Ihauterietan igeltseroz mozorrotu zen taberna horretako kamareroa.
2. Nahiago dut erromatarren edozein kaltzada, Afganistango larehun karretera baino.
3. Goardazibil haren erroa gasoilez zikindu zen gure etxeko ikuiluan sartu zenean.
4. Azalorea eta amuarraina eman ziguten bazkaltzeko.
5. Armadako jeneral ospetsua bakarrik ez, kardinala ere ba omen zen gizon hura.

OHARRA: lehenengoan, *Inauterietan igeltsero mozorrotu zen taberna horretako zerbitzaria* behar du; bigarrenean, *galtzada, laurehun eta errepide*; hirugarrenean, *Goardia Zibil haren arropa gasolioz zikindu zen gure etxeko ikuiluan sartu zenean*; laugarrena eta bosgarrena zuzenak dira.

Eguberri zoriontsuak guztiori!

ETXE BE
TABERNA
Zaldizurreta kalea
BEASAIN



**ARRANO
TABERNA**
Pintxo eta ogitartekoak
Eguerrietan ere preso eta iheslariak gogoan
Nagusia, 12 **BEASAIN**



Basakana
Gloriala eta
Pintxo ogitartekoak
Iturriotz, 11 **beasain**



Edaritegia **Jar** *Kafetegia*
Nafarroa Etorbidea, 27 ☎ 943 88 86 81
BEASAIN

**LURRAZPIKO
JAIA !!**
KULUSKA
ARANA, 1
☎ 943 88 93 88
BEASAIN



PUB
ASTI
Zaldizurreta kalea ☎ 943 88 45 06 **BEASAIN**



1.650 euro arteko diru laguntzak leiho isolatzaileak ezartzeko

EVE-ren neurri honek etxebizitzetako energi kontsumoa gutxitzea bilatzen du

EVE-k (Energiaren Euskal Erakundeak) 1.650 euro arteko diru laguntza emango du isolamendu gutxiko leihoak kendu eta berauen tokian beira bikoitzadun kamera dutenak ezartzeko; modu honetan eraikinen energia (eraginkortasuna eta errendimendua hobetzeko, eraikinen energia) eraginkortasunaz diharduen 2002/91/CE zuzentarauak proposatzen duen bezala.

Leihoen *renobe plana* deiturikoak dituen helburuak isolatzaile gutxiko leihoak ordezkatzeko da, berogailuetatik behartutako kontsumo energetikoa murrizteko. Diru laguntza honek baldintza teknikoaren artean ondorengo hauek ditu: jarriko diren leiho berriek CE marka eraman behar dute, gainera leiho zuloak etxebizitzaren kanpo aldeko itxituren barruan izango dira, eta ez dute diru lagun-



tzarik jasoko etxebizitzaren barne aldeko itxituretan kokatutako leihoak. Leihoez gain ate-leihoak ere diruz lagungarriak dira.

Erakunde honek kalkulatu duen moduan, etxebizitza batetako leihoen ordezkapenak 1.400 KWor/ urteko aurrezpena suposa dezake, edo berau euroetara bihurtuta 150 eta 200 euroko aurrezpena litzatekeena urtean. Aurrezpen honez gain, urtean 800 Kg CO₂ emisioak murriztea ere suposatzen du.

Dirulaguntzak etxebizitzako %22 batekoak izango dira eta gehienez 1.650 eu-

ro artekoak, eta diru eskerra EVE -n zuzenean kudeatuko dira. Guztira aurreikusi den diru poltsa 876.000 eurotakoak izango delarik; epe muga 2009ko ekainaren 30a ezarri da. Bestalde epe hori aurreratu egingo da diru laguntzak eskakizunen arauera amaitzen dihoazen heinean.

Leaburun, Txarama Auzoan dagoen Zuhaizki zurgindegiko Zuzendaria den Jose Ramon Esnaolak adierazi duen moduan, egurrezko leihoak eta barnetik egurra eta kanpotik aluminioa (mixtoa deitzen direnak) diren leihoak dira hoberen

betetzen dituztenak EVE-k bilatzen dituen ezaugarri hauek. Denongatik ezagunak diren egurraren goxotasuna eta ikusgarritasunak, atzetik ere emaitza ezin hobeak ematen ditu beste materialekin alderatuta, hala nola aluminioa edo PVC-arekin. Berau ez da harritzekoa jakinaren gainean egurra hotz-bero konduktibitate gutxiko materiala dela eta berau ukitzen ari garen bitartean ez dugula bero galera handirik jasaten. Bere ezaugarri higroskopoari esker, beste abantaila bat, neguan giro goxoagoak eta udaran freskoagoak lortzeko ahalmena du. Isolamendu termikoak zuzenean gure ongi-izanarekin zerikusia du.

Diru laguntza hauek ez dira etxebizitzetara mugatzen, denda, taberna, hotel edo beste edozein eraikuntza motetara zabal daiteke.

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak, Erreformak... 943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

Orain da garaia

Euskal Gobernuak, etxebizitza, txaleta edo baserrietako jabeentzat, 1.650 € arteko diru laguntzak eskeintzen ditu etxebizitza bakoitzeko, energia aurreztu asmoa duen leiho zaharrak aldatzeko.

Karmeletan gatik galdetu:
Tlf 943 67 36 11
Eta Gabonetan zure leiho berriak izango dituzu.

ZUHAIZKI, Tolosan leihoetan aditua.

Zuhaizki-ra deitu.
(Beira bikoitza eta europar kalidadeko zihurtagarria duten egurrezko leihoen fabrikazioan espezializatua) eta eskaera bideratzen lagunduko dizugu.
Aurreztu 22% zure leiho berrietan eta neguz gozatu.

Pottoka
K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

izal ☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño baserria IDIAZABAL

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

suquia

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA


e-posta: suquia@suquiahogar.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

altzariak - elektragailuak



Gure izatea kalitatea eta zerbitzua

Etxean bertan martxan jartzea dohainik



Herriak Elkarlanean Misio taldea

Beasaindik mundura laguntza bideratuz

Herriak Elkarlanean Misio taldea Beasainen sortu zen duela 9 urte. “Mundu justuago bat posible da” esaldia helburu hartuta, laguntza bideratu izan dute eta bideratzen dute Beasaindik eta Goierritik, Eritreara, Angolara, Beninera eta Haitira.

Italia, Paris eta Txinako moda

MODAYANG
arropa eta osagarriak

Nagusia, 35 eta 40 • BEASAIN

Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Gorka Eskalante beasaindarak, duela 9 urte pasa, Afrikako Eritreara egindako bidaiaren ondorenean sortu zuten Beasainen, Herriak Elkarlanean Misio taldea. Datorren urtean hamargarren urteurrena ospatuko dute beraz. "Eritreatik deskolokatuta etorri nintzen han ikusitakoarekin, eta zerbait egiten hastea erabaki genuen. Txibiltxuf aisialdi taldeko begiraleak hasi ginen. Elizbarrutiko Misio Ordezkariek eskualdean ere bultzatu nahi zuten elkarlan mota hau eta gu hasi ginen", azpimarratu du Gorka Eskalantek.

Pixkanaka-pixkanaka proiektu ezberdinak garatzen joan da Herriak Elkarlanean. Taldearen ikurrak dioen bezala, proiektu txikiekin, puzzlearen piezekin, proiektu handiak osatzea du helburu.

Hiru arlotan lan egiten du Herriak Elkarlanean Misio taldeak: Bidezko merkataritza eta Nazioarteko laguntza. Azken arlo honetan, proiektuak garatzea eta laguntza bidaltzea dira lanik nagusienak.

Bidezko Merkataritza

Eguberrietan, Beasainen, Bidezko Merkataritzako denda irekiz hasi zuen Herriak Elkarlanean bere lana. "Momentu honetan, herri askotara zabaldu dugu Bidezko Merkataritza. Legorreta, Ordizia, Lazkao, Be-



Beasaingo boluntarioak egoitzaren aurrean.

Goierriko boluntarioak

Beasaingo taldea: Gorka Eskalante, Marta Arnaez, Eneko Zaballos, Leire Plazaola, Enara Zamorano, Xabi Garmendia, Olatz Korta, Ane Cerdeira, Javier Zabalza eta Alberto Iparra.

Ordizia: Mari Karmen Yeboles, Edu Sánchez, Clari Mendizábal eta Iñigo Porro.

Legorreta: Mari Karmen Mendez.

sain, Zumarraga, Azkoitia, Soraluze, Donostiako Egian, Bergara, Elgoibar... Handia egin da. Beasainen hasi ginen, baina Misio Ordezkaritzarekin lana egiten dugu eta herrietan lan egiten duenez, jendea ezagutu eta zabaldu egin da. Egia esateko, Herriak Elkarlanean, oso handia egin da. Soldatapeko pertsona bat beharko

genuke baina zentzua galdu egingo litzateke, Herriak Elkarlanean boluntario taldea delako", zehaztu du Eskalantek.

Bidezko Merkataritzako produktuak maiz erosten duten pertsonen eskariei kasu eginez, denda txiki finkoa ere prestatu dute: Beasainen, asteartetan, irekita egoten da, Herriak El-

karlanean egoitzan. Ordutegia: 16:30etik 20:00etara.

Gabonei begira, Beasainen eta Ordizian Bidezko Merkataritzako bi denda ireki dituzte: Beasainen, Loizoko San Martin plazan, Olano harategiaren ondoan eta Ordizian, Legazpi kalean, Hidalgo bitxitegiaren parean.

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



Baina zer da Bidezko merkataritza? "Betiko merkataritzaren aurrean alternatiba da. Irizpide ekonomikoak baino, balore etikoa dira nagusi. Irizpide ekologikoak gailentzen dira. Lan egiteko modu horretan, soldata duin bat bermatzen da, haur esplotaziorik ez da eta ematen; emakume eta gizonen artean ez dago ezberdintasunik soldataren aldetik; erabakiak demokratikoki hartzen dira. Errespetuan datzan harreman komertzial honetan, bitartekariak ez dira aberasten; epe luzerako harremanak ezartzen dira; erosketak aurre finantzatzen dira; salneurria erosle eta saltzailaren artean dira".

herrien berezko kulturari eusten laguntzen diolako; ekoizle txikiei merkatu berriak zabaltzen dizkielako; munduan zehar milaka lagunaren garapena bultzatzen duelako; kalitatezko produktuak direlako; naturaren errespetua sustatzen dutelako".

Nazioarteko lankidetzaz

Nazioarteko lankidetzari dagokionean, Afrikako Eritrea, Angola eta Benin eta Amerikako Haiti herrialdeekin ditu harremanak Herriak Elkarlanean taldeak. Dena den, arlo honetan, bi eginkizun sartzen dira: batetik, proiektuak gauzatzea; eta bestetik, janariz eta materialiez betetako edukion-

Nazioarteko lankidetzari dagokionez, Eritrea, Angola, Benin eta Haitirekin ditu harremanak Herriak Elkarlanean taldeak.


Honela, Bidezko Merkataritzan produktuak erosiz mundu justuagoa lortzen lagunduko dugu Eskalantzeren esanetan: "Hegoaldeko ekoizle txikien bizi baldintzak hobetzen laguntzen duelako; herri txiroen garapen soziala bultzatzen duelako, osasun arloan, hezikuntzan, azpiegituran eta lanerako heziketan; bertako

tziak bidaltzea. "Esate baterako, azaroaren 8an, Haitira edukiontzi bat bidali genuen, bertan gertatu zen hondamendi naturalaren ondorioak arintzen laguntzeko. Ia 6 mila kilo janari bidali genuen, ordenadoreak, garbigailu eta lehorgailu industrialak... Gehiena janaria zen. Pintura poteak. Normalean edukiontzian,



Haitiko edukiontzia

Azaroaren 8ra, Haitira edukiontzia bidali zuen Herriak Elkarlanean taldeak. 6.000 kilo janari inguru bidali zuten, guztia ere, goierritarrek emanak. Guztiei eskerrak eman nahi dizkie "Edukiontzia bidaltzea, 6.000 euro inguru kostatzen bada ere merezi du. Lehen jasotzeko 3.000 euro ordaindu behar ziren baina orain zerga hori kendu egin da. Beraz, barruan doana doanekoa denez, merezi du".



SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA





Proiektuak, herrialdez herrialde

Ia hamar urteotan, proiektu ugari lagundu dituzte Eritrean, Indian, Angolan, Beninen eta Haitin. Ondoren duzue zerrenda:

Eritrean

Hiru eskola, ur putzu bat eta txunbo pikuekin mermeladak egiteko eta jogurrak egiteko lokala.

Indian

Urritasunak zituzten haurrentzako aterpe-txea eraiki zuten.

Angolan

Gizarte zentro bat, eskola eta osasun zentroarekin; alfabetatze programa; helduentzako alfabetatze programa; ekografia makina; janaria banatzeko lekua.

Beninen

Barnetegia; fruta transformatzeko makina; emakumezkoentzako eskola eta barnetegia; eta eskola.

Haitin

Botika anbulatorioa eta elikadura gaietarako harrera eta heziketa zentroa, haur eta umeentzat.

Beningo proiektua

Momentu honetan, Benin herrialdeko Atacora departametan, Eskolaurreko eta Lehen Hezkuntzako eskola eraikitzeko proiektua du eskuartean, Herriak Elkarlaetan Misio taldeak. 148.765 euroko aurrekontua du lanak. Dena den, Beasaingo udalak eta Irizar kooperatibak emandako dirulaguntzarekin, lehenengo fasea egina dago: Eskolaurrearen eskolaren eraikitzea, dutzak eta komunak.

Proiektua osorik bete dadin, dirulaguntza eskatzen du Herriak Elkarlanean taldeak. Horren aldeko kanpaina egingo du Gabonetan. Kontu korrante zenbakia eman dute, norbaitek proiektua diruz lagundu nahiko balu: 2101 0030 92 0011012762.

dohainik emandakoa joaten da. Zumarraga, Legorreta, Ordizia eta Beasainen bildu genuen. Gipuzkoa osoko jendeak hartu du parte”, azaldu du beasaindarrek.

Lankidetzako herriak nola edo zeren arabera aukeratzeko galdetu diogu Eskalanteri. “Konfidantzazko pertsonak izatea da baldintzetariko bat. Eritrean adibidez, Pedro zegoen eta Angolan Beasaingo Josetxo. Misio ordezkaritzakoek, Beningo gotzain bat ezagutzen du, inguru hartan lan asko egiten ari dena. Eta Haitin, Hermanas Mercedes de la Caridad. Harreman horiek aprobetxatzen ditugu. Konfidantzazko harremana izatea da beharrezkoa”.

Eritrean hasi ziren proiektuak gauzatzen. “Nire lehenengo esperientzia Afrikan, Eritrean izan zen, Pedoren bitartez. Eritrea politikoki oso gaizki dago eta Pedro bidali egin zuten. Orduan hasi ginen Angolarekin lanean. Angolarekin lan egin dugu dugu urte batzutan, Beasaingo misiolari bat zegoelako, Josetxo, baina hura ere etorri egin zen. Nahiko osatuta dago Angola. Beharra badago baina ez da Haitin eta Angolan bezala”, zehaztu du Eskalantek.

Batez ere, hurrekin, osasunarekin eta hezkuntzarekin zerikusia duten gaiak aukeratzeko dituzte.

HIERCOR,S.A.

BURDINAK, METALAK ETA DESGUAZEAK

Altune industrigunea, D partzela S-41

OLABERRIA

Tel.: 943 88 17 07
Faxa: 943 88 75 42

hiercor@terra.es



Proiektuak aurrera eramateko, hiru diru iturri nagusi dituzte: Udalak, Irizar Kooperatiba eta Eliza.

Proiektuak bide onetik doazela ziurtatzeko, bi urtean behin, udako oporrak, bertara joateko aprobeztatzeko dituzte Herriak Elkarlaneanako kideek. Aurtengo udan adibidez, Beninen izan dira:

“Nik behar dut, bi urtean behin hara joan eta gauzak ondo egiten ari direla ikusita. Dirua bidali bakarrik ez dugu egiten, kontrolatu egiten dugu. Jendeak askotan zalanza hori izaten du: gu

aurten joan gara eta hango fakturak ekarri ditugu. Beniera dirua transferentzi bidez bidalita, %16a bidean galtzen da. Gobernuak, bankuek... kentzen dute. Proiektu handi batean hori diru asko da. Jendea joaten bada, eskuan eramaten da dirua. Enpresek emandako diruarekin hori egin dezakezu baina Udalak emandakoarekin ez, trasferentzia egin behar da. Baina ahal denean, eskura egiten dugu”, zehaztu du Eskalantek.

Haitira joateko asmoa ere badute “baina oso gaizki omen dago eta beldurra

ematen dit. Gauza asko dago egiteko, behar asko omen dago. Haiti oso-oso kaltetuta dago”, aitortu du.

Harrera beroa

Egiten ari diren proiektuak bertatik bertara ikustea pozgarria izaten da. “Gauzak eraikitzen eta egiten ari direla ikustea pozgarria da

bai”. Hori bai, geldoa ere izaten da prozesua, diruak gauzak errazten baditu ere. “Adibidez, fruten transformaziorako makina urtebete baino gehiago erosita zegoen. Gu udan joan ginenean, oraindik ailegatu gabe zegoen. Afrika horrela da. Portutik edukinontzia ateratzeko diru pixka bat... Hai-

Pena pixka batekin itzultzen gara Afrikatik, baina lanean jarraitzeko gogoarekin ere bai.



ASEPLAN S.L.
A H O L K U L A R I T Z A · E N P R E S A K

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERCANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g




www.txekin.net

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Orlizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnacka 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate



tin ere berdina. Moja portura joango da edukiontzia jasotzera eta hark badaki eskupekoa nori eman behar dion berehala ateratzeko. Hori lotsagarria da. Angolara joan ginenean, izugarria zen. Izugarritzko ustelkeria zegoen. Kotxearekin gaizki egin duzun aitzakian, isuna. Izugarritzko kasa zen. Dena da diru pixka bat ateratzeko. Benin nahiko ondo aurkitu dugu. Hori bai, hiriburura joan eta arriskutsu samarra zen. Herrietan, ondo, oso ondo”.

Aurtengo udan Beninen egon direnean, harriritu gelditu ziren beasaindarrak, hainbeste turista frantziar ikusita. “Frantziar pilo bat zegoen, furgonetekin. Beraien kasa joanda, Afrika ezagutzera”.

Pertsona zuriaren zain izaten omen dira beltzarrak. “Herri txikietan sartutakoan, ume guztiak korrika etortzen dira: txuri bat dator, goxoki batzuk eman go dizkigute...”.

Afrikatik zein sentimendurekin itzultzen ote den jakin nahi izan dugu: “pena pixka batekin bai. Eta lanean jarraitzeko gogoarekin ere bai. Jendeak oso harreara ona egiten du. Ongi etorri beroa egiten dute. Eskerrik asko etortzeagatik. Dena eman dizue. Jostun batengana joan ginen jantzi batzuk egiteko eta penatan, agur festa antolatzeko denborarik ez zutelako”.



“Eritrean, mutikoak kamioian sartu eta gerrara eramaten zituzten”

Zure bizitza nola aldatu zen Eritreako bidaiaren ondoren?

Oso gaizki etorri nintzen. Urte hartan kosta egin zitzaidan Txilibutxofen hastea. Eskola eraikitzen ibili ginen. Umeak uraren bila, kilometroak egiten zituzten, asto batekin. Gu gerra garaian joan ginen. Herrietan ez zegoen gizonezkorik. Behin, militarrek etorri eta 12 bat urteko umeak kamioian sartu eta gerrara eramaten zituzten, etxean ezer jakin gabe. Izugarria izan zen. Oso gogorra. Gerran zeuden, eta armak edozein lekutan zeuden. Kontrol asko. Eta niri armek, izua ematen didate. Angolan, beharra bazegoen, baina hobeto zegoen. Benin Angola baino okerrago ikusi dugu.

Eritreari buruz erakusketa bat egin genuen. Beasaingo misiolariak ezagutzen hasi ginen, Joxetxorekin hasi ginen harremanetan eta Josetxoren proiektuak laguntzen hasi ginen. Hara joan ginenean, Josetxo, oso famatua zen. Angolako Parrokia batean lan egiten zuen eta Parrokia bertako jendeari utzi zien. 2002an edukiontzi bat bidali genuen Angolara.

Haitira joatea beldurra ematen dit, badakidalako Eritreatik nola etorri nintzen. Horrelako egoera bat ikusiz gero... beldurra ematen dit. Baina joango gara. Orain Beninen lau proiektu dauzkagu eta hobea da Beningoa finkatzea. Gero sakonduko dugu Haitirekin.

X	A
X	O
KAMIXETA ESTANPAZIOA FOTOKOPIAK KOLORETAN PLOTER LANAK ETA PLANOEN KOPIAK ☎ 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39 San Inazio, 5 BEASAIN	

  	
<i>Eguberri zoriontsuak denoi !</i>	
AHOLKULARITZA OROKORRA: laborala, soziala fiskala merkantila kontablea.	GESTORIA: ibilgailuak garraioak berrikuntzak eskriturak.
☎ 943 16 00 65 Faxa: 943 16 03 59 goenaga@goenaga.com J. M. Iturrioz, 6 BEASAIN	



ETORKIZUN OPAROA DUEN PROIEKTUAN KONFIANTZA



IRIZAR

BALIO SEGURUA



www.irizar.com

KRISIA

daukaguna eta datorrena

Ekonomia krisiaren ondorioz daukaguna eta etorri dakigukena aztertzen saiatu gara ondorengo sei orrialdeetan. Goierriko sektore ezberdinetara joan gara, krisiaren eraginik nabaritzen duten galdetzerara. Batzuk nabaritzen hasi dira, beste batzuk. “Gauza batzuetarako badago dirua”, askok esan digute. Beste iritzi nagusi bat jaso dugu: jendeak beldurra daukala eta saltzaileek 2009ari beldurra diotela.

Sektore batzutan krisiaren eragina nabarmen hasi dira nabaritzen, batez ere oinarritzko gaitan. Janaridendetan, nabarmena da jaitsiera. Justukoa erosten omen dugu, eta elikadura merkeagoak. Harategietan dena den, oraingoz ez dira krisia nabaritzen hasi, etxean egoteko moduko eguraldia egin izana ere aldeko izan dute.

Jantzidendetan denetik topatu dugu. Umeen jantzietan beherakada nabarmena izan da eta oinetaketan ere bai.

Hori bai, aisiari dago-kionez, ohiturak ez omen ditugu hain erraz aldatuko. “Gauza batzuetarako dirua

badago. Bidaiatzeko eta bazkaltzera edo afaltzera joateko badago”, esan digute saltzailerik helduenek. Tabernek eta bidaia agentziek horixe baieztatu digute.

Gerriko liburudendan ere ez dute beherakadarik nabaritu. Igoerarik ez, baina beherakadarik ere ez. Gabonetan loterian diru asko gastatzen da eta Ordiziako Loteria Administrazioan esan digutenez, aurtengo gutxiengo salduko dute aurreikusten dute, azaroan beherakada nabarmendu baitute. Krisialdiaren ikuspegi orokorra azkenik, Ordiziako Kutxako zuzendariak eman digu.

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lurrindegia eta opari gaiak

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

IÑAKI ARIN
aseguruak

943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

Pello Agirrezabal, Ordiziako Kutxako zuzendaria:

“Kontsumoa berpiztu behar da berriz”

Aurrezki kutxek eta banketxeek, inork baino hobeto jakiten dute egoera ekonomikoaren berri. Enpresen eta herritarren diru mugimenduen jarraipena gertutik egiten dute. Ekonomia krisi bonen ondorioak nabaritzen hasiak direla azpimarratu digu Pello Agirrezabal Ordiziako Kutxako zuzendaria. Oraindik gaina jo ez duela eta, datorren urtearen bukaeran berriz ere joateko gonbitea egin digu, zein egoeratan gauden ikusteko.

Krisiaren eragina nabarmentzen hasi dela diozu. Krisia badago bai hemen, eta nabaritzen da. Guretzako egoera nola dagoen ikusteko adierazle bat, maileguen atzerapena da. Hau da, goraka doa, maileguak ezin ordainduz dabilen herritarren kopurua. Oraindik berankortasuna edo morositatea ez dago indize altuetan, baina poliki-poliki goraka doa. Gure borroka, morositatea kontrolatzea da. Eta nire ustez, krisiak ez du gaina jo. Datorren urtea



nahikoa gogorra izango da. Konparazio bat eginda, Espainiarekin edo Euskal Herriarekin, Goierri hobeto gaude. Langabeziaren datuetan ondo gabiltza oraindik. Baina jende asko sartu da mailegu handietan, eta bueltatzea kosta egiten da. Aukera ezberdinak ari gara eskaintzen maileguaren ordainketa errazteko.

Orain arte, maileguak erraz eman dituzue, handiak gainera. Orain berriz, zaila dago mailegua lortzea.

Hori egia da. Baina orain, mailegua emateko baldintza

gehiago jartzen ari dira. Aurren, urte hasieran hasi ginen baldintza gehiago jartzen, eta gero eta zorrotza goak dira. Gaur egun, kotxea erosteko ez dator inor mailegurik eskatzera. Kontsumorako maileguak, oso gutxi ematen ditugu. Etxean altzariak erosteko, kotxea erosteko edo oporretara joateko... oso gutxi. Etxebizitza mailegua ere asko jaitsi da. Bigarren eskuko etxebizitzak ia ez dira saltzen eta horrek ondorioa dauka: aurreko etxebizitza saldu gabe nola erosiko duzu etxebizitza berria?

Etxebizitza erosi nahi duenari adibidez, zein baldintza eskatzen dituzkio?

Gaur eskatzen dugu, aurre-ratuta zerbait edukitzea, % 15 edo %20 berak jarriko duela. Hortik aurrerakoa guk ematen dugu. Baina bueltatzeko gai denkontuan eduki behar da: lan finkoa daukan, etxe horretan sarrera bat ala bi dauden... gauza asko begiratzen dira. Ez dago erraza, ez.

Krisitik ateratzeko zer egin behar dela ikusten duzu?

Kontsumoa, orokorrean, jaitsi egin da eta kontsumoa berpiztu egin behar da. Zer behar da kontsumoak berriz ere hazteko? Interesak jaitzea. Euriborra badoa behe-raka. Azkeneko bi hilabete-etan bi puntu jaitsi da. Askotan esanahi du horrek. 200.000 euroko mailegu batean, hilean, 250-300 euro gutxiago ordaintzea esan nahi du. Familia batean, hilean 250 euro gutxiago ordaindu behar izanda, gizarteari arnas pixka bat emango dio, kontsumoa handitzeko. Eta kontsumo horrek dakar hazkundera. Kontsumoak produktzioa dakar, enpresetan lan gehiago, kotxe

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Eguberri on!

☎ 943 16 16 06 - 619 770 600
Urdaneta, 41 **ORDIZIA**

Gabon jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

*Diseinua Kalitatea
Berrikuntzak Garantia*

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 **ORDIZIA**

Elikadura

Eguneroko janaririk herritarrak euroak aurrezten ari dira, krisiaren ondorioz. Produktu merkeagoak erosten ditu jendeak, janaririk merkeenak. Jaitsierarik handiena urritik hona nabaritu badute ere, urte guztian aritu dira pixkanaka-pixkanaka gutxiago saltzen. Hala esan digute Beasaingo San Inazio kaleko Aliprox janari dendan. Dena den, "Gauza batzutarako dirua".

Dena den, bi harategitan izan gara. Ordiziako Khafen eta Beasaingo Azurmendin. Bietan, alderantzizkoa esan digute, momentuz, ez dutela krisiaren eraginik izan.

Azurmendi harategiko Iñaki Azurmendik esan digunez, "guretzat urria, aspaldiko urriarik onena izango zen. Eguraldi txarra egin du eta guretzat hobea da, etxean gehiago gelditzen da eta. Guk ere momentuan ez dugu krisiaren eraginik nabaritu. Jendearen beldurra ikusten da. Telebistan ere beste gauzarik ez dago. Gauzak ez direla ondo egongo, baina guk ez dugu nabaritu momentuan. Jendeak hitz egin bai, asko. Orain futbolaz gutxiago hitz egiten da".

Iñaki Azurmendik ere badu beste iritzi bat: "Elkarteak igotzen ari direla dirudi. Jendea gero eta gehiago joaten da elkarteetara, lan pixka bat eginagatik, merkexeko aukera dagoelako. Jendea tabernara gutxiago joaten baldin bada, etxean gelditzen da eta guretzat onura izaten da hori".

Hori bai, jendearen erosketa ohiturak zertxobait aldatu direla dio. "Irregularrago dabil jendea. Lehen osteguna eta ostirala izaten ziren egunik fuertena, baina orain ez dago jakiterik. Nik uste dut, jendea egunean bizi da, eta justuago dabilenez, jendea merkatal zentroetara gutxiago joaten dela ematen du. Jendeak justukoa erosten du", nabarmendu du arriarandarrak.

2009a okerragoa omen dator? "Gure kasuan hobea izatea zaila da baina luzatuz gero, orduan etorriko dira komeriak. Langabezia kobratuz gero ere eusten zaio, baina hori bukatzen denean, orduan izaten dira komeriak. 2010a igual okerragoa izango da, 2009an zuloa eginez gero...", gaineratu du Azurmendik.




Iñaki Azurmendi barakina.

gehiago salduko dira, jendea oporretan gehiago joango da ... kontsumoak dakar azkenean, jaitsiera eta igoera eta kontsumoa berpiztu behar da berriz. Euriborra jaitsita, berriz ere konfidantza hartu behar dugu.

Dena den, komunikabideetatik zabaltzen diren mezuen arabera, datozen hilabeteak okerragoak izango dira. Jendeak badiu kezkatzeko arrazoirik?

Jendea izututa dago bai, ez da ausartzen etxe berrietan sartzen. Hori kate bat da. Konfidantza behar da berriz ere. Zulora berehala jaitsi gara, urtebete-urte eta erdian. Haztea eta berriz ere lehengo mailatan jartzeta kosta egingo da, urteak beharko ditugu. Datorren urtean, garai honetan igual, hasiko gara arnasa pixka bat hartzen. Baina kontsumoa behar da. Gauza txikietatik hasi behar da. Familiak hasi behar dira gehiago kontsumitzen. Kontsumo gehiago, produkzio gehiago, lan gehiago, soldata gehiago, kontsumo gehiago. Dena lotuta dago. Eragin asko dauka AEB merkatuak. AEBk dakar beherakada eta gorakada. Hemen ez dago milagrorik. Han beheraka joaten denean, handik denbora batera gu ere beheraka goaz; goraka hasitakoan gu ere bai. Zikloak daude.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

ZAHARRA • BERRI
IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrot@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

Ziklo gogorra izango al da? Batzuk, orain dela 10 urtekoa dakarte gogora.

Nik uste dut ezberdina dela. Garai hartan, enpresak gaur egun baino okerrago zeuden Goierrin. Gaur egun, enpresa indartsuak, hemen, ez daude hain gaizki. Eta enpresa indartsuen ondoan, lantoki txiki asko dago. Langabezia gorakadoa, ez gaude egoera onean, baina konparazioak eginda, Goierrin hobeto gaude. Nik uste dut gauzak nahiko ondo egin direla hemen. Dibertsifikazioa ere badago. Inmobiliaria bota-a ez da hainbeste egon. Prezioak asko igo dira, ikaragarri. Orain dela 10 urteko krisian, gaur baino okerrago zeuden inobiliariak. Azkeneko 10 urteetan, urte oso onak eduki dituzte eta horri esker daude, gutxiago zortuta, eusteko moduan. Gaur egungo etxebizitza berrien prezioa, oso handia da. Bikote gazte batentzat ezinezkoa da. Orain arte sartu egin dira, maileguak erraz ematen genituen eta. Baina gauzak beheraka hasi direnean, orduan hasi dira arazoak. Etxebizitzak asko esan nahi du. Etxebizitzaren prezioak bere lekuan jarri behar dira. Oraindik ez daude bere lekuan. Gehiegizko prezioan daude. Inbertsio publikoa da horretan garrantzitsua. Udaletxeek-eta, Babes ofizialekoak, prezio kontzer-

Ostalaritza

Ostalaritzako datu orokorren arabera, kontsumoak behera egin du. Krisiaz gain, herritarren ohitura aldaketak ere gehitu behar zaizkio. Goierriko bi taberna eta jatetxetara jo dugu, krisiaren eraginik nabarmentzen duten jakin nahian.

Ordiziako Pottoka tabernako Aitor Urretak adierazi digunez, "guk momentuz ez dugu nabaritzen. Urteko hilabeterik txarrenak azaroa eta otsaila izaten dira, eta beste urteetako bezalako azaroa izan da. Krisiaren eraginik ez dugu nabaritu; hori bai, jendeak beldurra dauka. Lanik gabe gelditu direnak egongo dira baina nik uste dut, momentuz, ez dela nabaritzen. Poteoa bukatzen ari da, baina ez krisiagatik, ohitura aldaketagatik baizik. Kafea, pintxoak, ogitartekoak... normal ari gara lanean. 2009a ez dakit zer izango den, baina nik uste dut igualtsu jarraituko duela. Nik uste dut hemen beldurra dagoela. Nik bakarrik dakit, abenduko zubian jende pilo bat eskiatzen izan dela. Ez dakit krisia zenbaterainokoa den".

Zaldibiako Lazkao Etxe jatetxeko Eneko Azurmendik ere, momentuz ez du eragin handirik nabaritu. "Zenbakiek gora egin beharrean, egin baldin badute, zerbait behera egin dute. Baina nabarmen ez. Gero ikusi behar ea zein garapen izaten duen. Momentuz ez du ematen alarmatzeko modukoa denik. Esaten da krisiak barneko kontsumoan ez diola kalterik egingo, mesede egingo diola; jendea kanpora gutxiago mugituko dela eta bertan gehiago kontsumituko duela".

Hori bai, jendea, "zalantzaren kasuan, badaezpada ere" merkeago jaten lekuetara joaten hasita omen dago. Leku batzuetan hasiak badira ere, Lazkao Etxen ez dute pentsatu menu bereziak jartzea, kartarekin jarraituko dute. "Oraingo aurreikuspen hauekin ez dugu beharrik ikusten. Beste batzuk prezio jakin bateko menuak jartzen dituzte. Baina guk ahal dela, orain arteko lineari jarraituko diogu. Baina azkeneko joeraren arabera, lehen sekula galdetzen ez bazuten, orain, asteburuko menu bereziak ditugun galdetzen digute. Jendeak ondo jan nahi du, baina ahal den merkeena. Azken batean, bezeroek mugitzen dute merkatua, era batera edo bestera. "Jate kontuak, bat-batean etetea, zaila izango da, jendea ohituta dagoelako", dio Azurmendik".

2009ari beldur ote dioten galdetu diogu zaldibiarrari. "Hotsak ez dira onak, gogorre-na 2009a izango omen dela zentzu guztietan esaten dute. Aurreikuspenak egitea izango litzateke, ekonomian artistak direnak horretan arituko dira. Ez dugu aurreikuspen ezkorrik egin nahi. Pentsatzen dut, berdintsu lan egingo dugula; gehiago egiten ez bada ere, etsi behintzat, aurtengoa berdinduta ondo".



Zaldibiako Lazkao Etxe jatetxeko Eneko Azurmendi.

ttipi - ttapa umeen arropa denda

Chipie Ikks
Cake Walk Jean Bourget
Levi's Clayeux
Pijamak: Arthur

Santa Maria, 35 ORDIZIA tel.: 943 886 901



**Zurgindegia
mekanikoa**

AUREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxes: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU
ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

Turismoa

“Badaezpada ere...”, horrelaxe laburbildu du Urraki bidaia agentziko Izarra Urdalletak. “Psikosis asko dago. Nire ustez, jendeak dirua badauka baina, komunikabideetatik beldurra sartzen ari zaizkigu”. Beldurrik ez diote 2009ari, errespetua bai.

Goierriarrek bidaiatzeko joerari eutsi egiten diete oraindik. “Guk orain arte ez dugu bidaia agentzian krisiaren eraginik nabaritu. Guretzat orain, denboraldi baxua da, baina beste urteetatik ez dugu jaitsierarik nabaritu. Guk jaitsiera nabaritzekotan, datorren udan nabaritutako genuke, edo Aste Santuan. Orduan esango dugu benetan krisia nabaritu den ala ez. Azaroan jendeak asko bidaiatu du eta Gabonetarako, inoiz baino

gehiago saldu dugu. Aurtengo udan turismoa jaitsi egin dela esan bada ere, guk ez dugu nabaritu. Irailean ere ez, oso ondo saldu da”. Urdalletaren esanetan, “badago jende bat, nahiz eta krisia egon, bidaiatzeari ez diona utziko. Aukera duen jendea beti egongo da”.

Hori bai, bidaiatzeko ohiturak aldatzen ari omen dira: “orain dela 10 urte, jendea, abuztuan, 15 egunerako joaten zen oporretan. Baina gaur egun, eta urte batzuk badira, astebeterako. Baina hori aspalditik da. Beste aldaketa bat ere izan da azkenaldian: guttia ordainduta joaten da jendea. Hemen gehixeago ordaintzen dute baina ez daukate ezertxo ere ordaindu beharrik. Hotelaren eta hondartzaren inguruko txiringitoak edo taberna hutsik daude. Baina hori opor lekuan nabaritu dute, guk ez”, zehaztu du.

Goierriarrek kanpora joaten diren bezala, Goierriera ere etortzen dira turistak. Goierriko turismoaren datuak, Goiturreko Niko Osinaldek ezagutzen ditu ondoen. “Erosketa saskian dago sartuta bidaiatzea, jendeak ez du bidaiatzea baztertu. Abenduko zubia oso ona izan da. Udazkena ere ona izan da. Eta 2009ko lehenengo asteburueterako ere aurreikuspen onak daude. Gertuko jendea dator. Hori bai, jatetxeetan gastu gutxiago egiten dute. Norberak etxetik ekarrita, eta otordu merkeagoak egiten ditu. Orain jendeak kotxez egiten ditu bidaiak. Hegazkinez egin beharreko bidaiak baztertu egin ditu. Guk hor, abantaila daukagu. Lehenengo merkeenak betetzen dira. Kostaldera joan beharrean, barrualdean merkeago daude ostatuak, eta gainera kalitatezko ziuertagiriarekin, garrantia badago”. 2009ari begira, kotxez, gehienera, 2 edo 3 ordutara dauden probintzietan egingo dute sustapenik handiena Osinaldek aurreratu duenez.



Urraki bidaia agentziako langileak.

tatuak dituzten etxebizitzak merkeagoak datoz... nik uste dut hortik etorri behar dela. Alokairuzko etxebizitzak ere bai. Nik uste dut hortik etorri behar dela hazkundera. 300.000 eurotik gorako etxebizitza ez da gaztearentzako heldulekua. Etorkinak ere etxebizitzetan sartu dira. Lehenengo enplegua galtzen dutenak etorkinak dira.

2009 urte bukaera aipatu duzu. Hobeto ala okerrago egongo gara?

Datorren urtearen bukaeran esango dizut. Ez da erraza. Nik ez dut uste hobeto egongo garenik. Oraindik goraka hasi gabe egongo gara. Behera berehala egiten da zuloa baina gora egitea kosta egitea. Baina jendeak konfidantza hartu behar du, kontsumoa igo.

Beldurraren eraginez, jendea gehiago aurrezten ari al da?

Dirua daukan jendea ez da inbertsioetan sartu azkeneko urte eta erdian. Ez daki nola doan ekonomia eta eutsi egin behar dio. Baina nik uste dut hortik baino gehiago, interesa jaistetik datorrela igoera. Interesak urrian, 5,5ean zeuden eta orain, 3,5ean daude. Eta gehiago jaitsiko dela esaten dute. Jaitsi behar da, ikusten delako, berpiztu egin behar dela ekonomia. Gasolinak ere kalte asko egin du. Pentsa non egon den!

Iñasti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

SEGURAKO UDALAK

**Eguberri zoriontsuak
eta Urte Berri on
opa dizkizue guztioi**

SEGURAKO UDALA

Zein kostu ekarri dien enpresei, eta denoi! Gasolina jaitsita, maileguan 250 euro gutxiago ordaindu behar... urtean berriz ere oporretara joateko moduan behintzat. Eta hori gizarte oso batean, asko da.

Datorren urteari begira, zein gomendio edo mezu zabalduko zenuke?

Hurrengo hilabeteetan krisiaren eragina handitzen joango da. Baina baikorrek izan behar gara. Nik nire ustez, gure bailaran ondo eramaten ari gara orain arte, eta espero dut hemendik aurrera hala izatea. Etxebizitzan sartzea, dirurik ez badaukazu, oso zaila dago. Dirua baldin baduzu, baliteke orain garaia izatea negoziatu eta etxebizitza ondo erosteko. Krisi garaietan dirua egiten da eta lehen gelditu dena ezer egin gabe, itxoin duena, eta orain dirua baldin badauka, orain dauka aukera etxebizitza bat erosteko edo beste inbertsio bat egiteko. Hori kontuan hartzekoa da.

Nik uste dut Euriborra jaitsita lagunduko duela kontsumoaren hazkundekak. Positibo hartu behar dugu. Nik uste dut ziklo honetan, jaitsierak joko duela datorren urtean, eta hasiko garela pixkanaka goraka. Hemendik urtebetara, espero, argitasun pixka bat gehiago ikustea. Eutsi egin behar da, gerrikoak estututa.



Jantziak

Bi jantzidendetara egin dugu bisita, ea krisiaren eraginaren inguruan zein datu ematen dituzten jakiteko asmoz. Biak ere Ordiziako dendak dira: Zipi Zape, haur jantzi denda eta Ness, emakumezkoen jantzi denda.

Zipi-Zaperen kasuan, "asko nabaritzen da krisia, nik behintzat bai, eta gehienek hala esaten dute. Saltzen da, baina poliki. Lehen hiru konjuntso erosten zituena, orain bat erosten du. Azaroa oso baxua izan da. Urriari hasi zen beherakada, asko gainera. Dena den, urte guztian joan da pixkanaka beheraka. Beherapenen zain dago jendea. Beherapenak besteetan baino lehenago jarri ditugu. Gabonetarako pixka bat gehiago hasi da mugitzen. Nik esperantza daukat, krisiaren ondorioz, jendeak jostailu gutxiago oparitu duela eta arropa gehiago, behar dena alegia. 2009a txarragoa izango omen da, ez dakit zer egin behar dugun. Baina asteburuan iritzeko eta bazkaltzera joateko ez dago krisirik. Jendea mugitzen da. Oporrak zerbaiz sakratua bezala jarrita dauzkagu, beharrezkoak bailiran", adierazi digu Zipi Zape dendakoak.

Ness jantzidendako Estik, oraingoaz, ez du hainbesteko eraginik nabaritu. "Azaroa geldoagoa izaten da beti eta aurten ere hala izan da. Baina gainerakoan, ez dut beherakada handirik izan". Baina Eguberriak izango dira termometroa Estirentzat: "Eguberrietan asko gelditzen bada, eta telebistak denei ez erosten animatzen ari dira... Eguberriei beldurra diet. Eguberrien ondoren behar bada beste zerbaiz esango dut. Nahiago dut balorazioa aurrerago egitea. Orain arte oso baikorra izan naiz eta saiitzen naiz horrela izaten.". Aldaketa bat nabarmentzen du dena den Estik: "bezero mota ezberdinak daude. Lehen erraztasun gehiagorekin erosten zuenak orain ez duela hain erraz erosten. Dirua daukanak berdin gatzaten du baina gutxiago daukanak gehiago begiratzen du".

euler
bombas sumergibles

Salmenta
Konponketa
Alokairua
Harilketa

T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

e txekin

www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

“2009an, oinetakoen salmenta %25ean jaistea aurreikusten dugu”

Beasaingo Aranburu zapatadendara joan gara oinetakoen salmenta nola dagoen jakiteko irrikan. Tere Irizarrek, garbi dauka: beharrez ez bada aurkitzen, ez da horren erraz erosten. “Guri zer gertatzen zaigu? Aurten, zorionez, eguraldi txarra egiten ari dela eta horrek behartu egiten ditu bezeroak. Behar horretan erosi egiten dute baina ez da erosten, gauzak ondo doazenean erosten den alaitasunarekin. Nik uste dut jendea beldur izugarria ematen diola. Eta hori nabari da, asko hitz egiten baita horretaz”.

Beharakada hau dena den, aspaldixokoa dela zehaztu du Irizarrek. “Euroa sartu zenetik dator pixkanaka. Lehengo susmoak, 2007ko urrian entzun ziren. Urrian ondo saltzen hasi zen eta bat-batean gelditu egin zen. Oso nabarmena izan zen. Horretaz aparte, oso eguraldi ona egin zigun. Azaroa oso epela izan zen, lehorra. Beraz, bata bestearen gainean jartzen badituzu... ezin da oso seguru esan zerk eragin duen, baina niretzako bai, giroan badago krisia, eta jendea beldur da”, zehaztu du.

2009ari beldurrik ba al diozu? “Bai! Izugarria gainera. Gu beldurrez baldin bagaude, ez dugu hain erraz erosten. Hau kate bat da. Hemen beste batzuk komentatzen dute, hemen ez dagoela arazo handirik, baina orain bai, hasi dira arazoak. Gaizki dauden sektoreak badaude eta bata bestearen atzetik doa. Lana galtzeko beldurra dago”, azpimarratu du.

Momentu egokian joan gara Aranburu oinetako dendara, Jose Migel Zulaika, zapata saltzailea, alegia, oinetako egile enpresen eta denden artean bitartekari lana egiten duena. Dendari askorekin du harremana eta dagoeneko, krisiaren eraginaren aurreikuspena egingo duena. “izugarri nabaritu dugu jaitsiera. Aurreikuspenak txikiagoak dira eta kezka antzematen da. Denda bakoitzak, %10-15 gutxiago erosten badu... orokorrean asko da. Nik kalkulua egiten dut, salmenta %20-25 gutxiagokoa izango dela. Guk aurretik jokatzeko dugu, 6 hilabete lehenago ibiltzen gara, guk udakoa saldu dugu dagoeneko. Eta portzentajeak asko jaitsi dira. Denda asko dago kili-kolo. Segurtasun eza handia dago gainera. Hemen hainbestean, baina behe aldera... desastre. Nik 2009ari baino beldur handiagoa diot 2010ari. Dendari asko mantenduko ote diren dago koska.



Jose Migel Zulaika eta Tere Irizar.

Bakoitzak bere negozioa daukana, hor nonbait, baina jende pilo bat dago, errentan, langileak dituen... kosta egiten zaie ailegatzea. Hori orain. Beraz, jarri gaitezen hementik 6-8 hilabetera”, azpimarratu du Zulaikak.

Aurten eguraldia lagun dute zapata-saltzaileek. Jose Migelek begiak zabaldu orduko begiratzen dio eguraldiari: “nik aspaldi esan nuen, otsailaren 21a arte, horrela jarraitu dezala. Eta martxoan, udaberria hasi”. Tere Irizarrek zehaztapen bat egin du. “Nik beti esaten dut, guk soroak behar duena behar dugula, garaian garaikoa”.

2009ari, 2008a baino txarragoa ez izatea eskatuko diote Urte Zahar gauean. “Aurtengoa txarra izan da, baina txarragorik ez dugu nahi”, gaineratu du Zulaikak.

 **mazda** ☎ 943 889 296
 Faxe: 943 887 952
Bikar, S. A. N-1 errep. 419 Kma
 BEASAIN



 **RENAULT**
LAZKAO GARAJEA
 Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
 Senpere Industrialdea LAZKAO

Gabon zoriontsuak opa diskizuegu guxtioi!
Aranburu
OINETAKOAK
 ☎ 943 880 127 Kale Nagusia,36 BEASAIN



Ordiziako Tabernarien partetik



*Eguberri
zoriontsuak
quztioi!*




Urdaneta 27 20240 Ordizia Tel.: 943 88 00 23

OLANO
TABERNA

HERRIKOA TABERNA



URDIN
rock
musika



ORLEGI
TABERNA



TAUR





Gorka Izagirre ormaiztegiarraren ametsa beteta

*Txirrindularia
profesionalerara
igoko da
Contentpolis-Ampo
taldearekin*

Txirrindulari guztiek duten ametsa, 21 urterekin bete du Gorka Izagirre ormaiztegiarrak: profesionalerara igotzea. Goierriko enpresa batean babesa izango du: Contentpolis-Ampo. Goierriko

beste hiru txirrindulari profesionalekin batera. Lehenengo urtean, ikastea eta laguntzea du helburua, eta dituen aukerak aprobetxatzea. Ziklo krosa zertxobait baztertu egin beharko du.


GERRIKO LIBURUDENDA



☎ 943 88 65 00
Faxa: 943 88 7971
gerrickoliburudenda@euskalnet.net
Elosegi 16 LAZKAO

**Gabon zoriontsuak eta
Urte Berri on!**

AZURMENDI HARATEGIA



Victor Mendizabal, 2
☎ 943 88 47 65
ORDIZIA

San Inazio, 6
☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28
BEASAIN

Talde berrian eta maila berrian arituko zara hurrengo denboraldian. Afizionatuetatik profesionaletara pasatuko zara. Aldaketa handia izango al da zuretzat?

Gaztea naiz, lehenengo urtekoa izango naiz, 21 urte ditut, ikastera, esandakoa egitera joango naiz, hauen-tzako lana egin... eta aukerak suertatzen badira, ihesaldiren batean edo, ahal denean aprobetxatzen saiatuko naiz. Zuzendariak esandakoa egingo dut eta aukerak baldin badaude, aprobetxatu.

Maila aldaketa nabaritu-ko da, ezta?

Bai. Maila guztietara igotzen garenean nabaritu izaten da. Esaten dutenez, diferentzia handiena, afizionatueta-tik profesionaletara dago. Nabariko dut bai. Baina nik uste dut erakutsi dudala txir-rindularitzan gai naizela profesionaletan ibiltzeko, maila badaukadala. Mexi- kon ere erakutsi nuen. Urte osoan afizioanatuekin ibili nintzen hemengo pelotoian, ez neukan profesionaletako erritmorik hartuta, batzuk Tourrean ibilitakoak ziren... Pixka bat prestatu nintzen baina ezberdina da. Gainera, gaztea izanda, nabarmitu egiten da. Baina hala ere uste dut maila ona eman nuela, bai mendiko etape- tan, ihesaldietan erraz sartu- ta.. itxura polita eman nuen. Hemendik aurrera, hurren-

Talde bila ibiltzea, gogorra izango da... Entrenamenduz aparte, lan gehiago dituzue.

Orain gainera, asuntoa dagoen bezala, oraindik zailagoa. Guk zorrea eduki du- gu, Ampok apustu hau egin duelako. Ber- ren aldetik ere nik uste dut apustua egin duela, beraien interesak ere edukiko di- tuzte baina gure alde jokatzera garrantzi- tsua da. Nire ikuspuntutik begiratuta, es- kertzekoa da. Murtziako enpresa eta biak eskutik helduta doaz eta aukera hori ematea eskertzekoa da.

Goierriko enpresa batek, Ampok, Goierriko txirringularitzaren alde egin du apustu.

Polita ematen du. Lau hartu gaituzte, de- nak talderik gabe geundenak... Nik tal- derik aurkitzen ez banuen afizionatueta- n jarraitzeko aukera banuen, baina besteak talderik gabe zeuden, egoera onean ez, inori ez baitzaio gustatzen talderik gabe

go denboraldian ikusiko dugu zer egiten dudan. Saiatuko naiz.

Profesionaletara igotzeko ametsa behintzat, bete duzu.

Bai, hori izaten da denon ametsa, ez nirea bakarrik. Batzuk lortzen dute eta bes- te batzuk ez. Niri tokatu zait, lehen esan dudan be- zala, merituak egin ditudala uste dut, eta aukera izan dut, orain aprobetxatu egin behar.

“Ampok gure alde egitea oso garrantzitsua da”

egotea. Aukera honekin, denok pozik gaude, elkartuta, entrenatzeko arazorik ere ez gainera.

Aurten gainera, denak elastiko berdi- narekin arituko zarete.

Bai, gustura gaude, oso gustura.

Goierriko txirringulari profesionalek elkarrekin entrenatzen dute. Orain talde honetara gerturatuko al zara?

Denboraldi aurea, ni nire kabuz ari naiz. Berandu samar bukatu dut denboraldia Mexikora joan nintzelako, orain dela pa- re bat aste hasi nintzen. Nire kabuz ari naiz pixkanaka. Behin denboraldian sar- tzen garenean, entrenamenduak elkarre- kin egingo ditugu.

Polita izango litzateke, Goierriko en- presa batek babesten duen talde bate- an goierritarren batek karreraren bat irabaztea.

Nik nire aldetik zaila edukiko dut. Baina besteak erakutsi dute kalitatea badauka- tela. Denek dauzkate karrerak irabazita.

Profesionaletara igota, bizitza asko aldatuko al zaizu?

Ez dut uste, ez nuke gehie- gi aldatzerik nahi. Donos- tian nabil ikasten eta ikas- ten jarraitu nahi dut. Hezi- keta fisikoko goi mailako ziklo bat egiten ari naiz. Martxoan bukatuko dut. Praktikak hori bai, atzeratu egin beharko ditut.

Entrenamenduak adibi- dez, gehiago egin behar- ko al dituzu?

Hori bai. Entrenamendu al- detik karga gehiago, errit- moa ere gehiago... korritu behar ditugun karreraren ara- bera. Taldearen lehen kon- zentrazioa egiten dugune- an, esango digute bakoitzak zer korritu behar duen eta horren arabera egingo ditu- gu entrenamenduak.

Egutegirik beraz ez dau- kazu oraindik.

Aurreko astean egon nin- tzen Murtziakoekin hizke- tan eta esan zidan pentsatu-



XEROX
 ile-apaindegi mistoa solarium bertikala
 Joan Iturralde, 5-7 (solairu artea) BEASAIN T 943 161 105



Aseguru konbeneduria
SEGURUEN PROFESIONALAK
MUNDUATE
 Elo segi, 1- behea
 Tfnoa.: 943 88 86 20
 Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
 Faxes: 943 88 91 18
LAZKAO



“Mandubi asko gustatzen zait”

Karrera bat:

Afizionatuen mailan, Legazpikoa. Lehenengo urtean korritu nuenean, karrera ona atera zitzaidan. Gogorra da, garrantzitsua ere bai eta etxe ondoan beste motibazio batekin korritzen dut.

Mendate bat:

Mandubia, asko gustatzen zait, bai alde batetik eta bai bestetik, bai karreran eta bai entrenatzen.

Idolo bat:

Ez daukat. Lehen txikitan, Indurain, Tourra irabazi egiten zuen-eta, hemengoa da gainera. Olano ere bai.

Txirrindularitzaz gain, beste gustuko kirol bat:

Pilota. Oraindik ere lagunekin aritzen naiz.

Zaletasun bat:

Mendira joatea.

Urte Berriari zer eskatzen diozu?

Karreraren bat irabaztea. Edozein, igual dio zein.

Ordiziakoa adibidez?

Ez legoke gaizki, oraintxe sinatuko nuke.

ta zeukatela urtarrilaren 7an lehenengo konzentrazioa egitea, Murtzian.

Bitartean, zein entrenamendu egin-eta bakoitzak erabakitzen duzue?

Nik orain arteo zuzendariarekin, Artetxerekin jarraitu behar dut. Hark IVEF egina dauka eta masterra ateratzen ari da. Seguros Bilbaoko guztioi jarri dizkigu entrenamenduak eta Seguros Bilbaotik pasatutako profesionaleri ere bai. Niri ondo joan izan zait afizionatueta eta berarekin segituko dut.

Talde bila aritu behar izan zarete. Euskaltelen ateak itxita izan dituzue?

Beraiek esaten dute, zenbait talderekin hitzarmenak dituztela. Talde batzuk aukera gehiago dituzte Euskaltelekin profesioaletara pasatzeko, beste batzuk baino, nahiz eta meritu gehiago egin. Bidelanen edo Caja Rural taldean dagoen batek nahiz eta gu baino meritu gutxiago egin, aukera gehiago dauzka pasatzeko. Guri aukerarik ere ez digute ematen. Diferentzia horiek Euskaltel bezalako talde batean egotea, niri ez zait ondo iruditzen. Diru publikoarekin egindako talde bat da eta txirrindularien artean zu bai eta zu ez esatea, horrelako diferentziak egotea... Arrazoia talde hitzartuak jartzen ditu. Talde hitzartuei segimendua egiten dietela esaten dute baina adibidez, nire anaia, De-

babarrenan ibili da, talde hitzartua da. Taldetik ondona ibili dena bera izan da eta ez diote inolako segimendurik egin, ez dute berarekin hitz egin... Niri adibidez, Seguros Bilbaon, segimendu bat egin didate, esfortzu probak pasatu ditugu, analisiak... nire anaia, talde hitzartukoa izanda, ez du esfortzuzko proba bat egin, ez analisisirik... Taldean bera ibili da ondoen, eta bera baina gutxiago ibili den bat, meritu gutxiago egin ditu, eta hura pasatu egin behar dute.

Txirrindularitza egoera zailean al dago?

Egoera zailean egonda eta hemen horrelako diferentziak egonda, egia esanda penagarria da. Baina horrela da eta ez dago besterik. Orain dela aste batzuk, Amporena atera aurretik, Dionirekin-eta egon nintzen eta galdetu zidaten aurtengo denboraldirako zein asmo nuen, hitzartutako talderen batera joatekoa edo... Ezer ere ez neukala esan nien, nire taldean jarraitzea pentsatzen nuela. Nire anaia orain, Seguros Bilbaora pasatu da. Hitzartutako talde batera pasatuz gero igual Euskaltelera pasatuko nintzateke baina igual, nire pertsonalitatea da eta ez zait ondo iruditzen eta nire bidea jarraituko dut. Segurosen eta beste hainbat taldetan nik uste dut gauzak ondo egiten direla.

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

ORKI

**Opariak
Arropa osagarriak**

Gabon zoriontsuak!

Nafarroa Etorbidea, 5
☎ 943 88 10 50
BEASAIN

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak**

Harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Pasa den denboraldian lasterketa asko irabazi dituzue.

Bai. Baina existituko ez bagina bezala da. Lehendakari, Sub-23, Euskaldun txapelketak egoten dira eta txapelketa horietan, hitzartutako taldeetakoak ez dira aurrean ibiltzen. Horrek ez du esan nahi jende ona ez denik. Nik esaten dudana da, diferentzia horiek ez liratekeela egon behar. Diferentzia horiek egon gabe, bat ondo ibiltzen bada edo pertsona erregularra baldin bada, segimendu ona egin, edozein taldetako izanda ere. Baina hori ez dute egiten. Gu gure bidea bilatu beharrean gaude, moldatu beharra daukagu, orain gainera txirrindularitza dagoen bezala, oraindik ere gehiago.

Txirrindularitza nahiko itsusi dago, ezta?

Bai, nahiko itsusi bai. Dopin asuntoak direla, taldeak desagertzen ari direla... itsusia dago eta etorkizun iluna dagoela ematen du. Baina guri gustatu egiten zaigu eta behin honaino iritsita, txikitatik kirol hau eginda, txikitatik profesionaletara iristeko izandako ilusioa, puntu honetara iritsita, ez duzu etsi behar. Aurrera jarraitu behar da.

Orain artekoa ondo egin duzu, hemendik aurrera zer egiteko esperantza daukazu?

Orain arte egindakoak ez



Aurreko mailatan zenbat karrera irabazi ditudan ez du balio, profesionaletan erakutsi behar da. Saiatuko naiz ahal dudan ondoen egiten.

du ezertarako balio. Orain ni behintzat zerotik hasiko naiz. Aurreko mailatan zenbat karrera irabazi ditudan ez du balio, profesionaletan erakutsi behar da. Orain da erakusteko momentua. Saiatuko naiz ahal dudan ondoen egiten.

Zertan moldatzen zara ondoen?

Orain arteko mailetan, ez naiz inon punta-puntan ezertan ibili. Ondo moldatzen naiz. Sprintean adibidez, talde txikitetan, 10-15eko taldeetan, nahiko arrisksutsua naiz. Goraka ere ondo moldatzen naiz, for-

man ondo nagoenean.

Tourra irabazteko txirrindularia, orduan.

Urruti dago hori.

Hurrengo ametsa Frantziako Tourra al duzu?

Ez dut horrelakorik pentsatu. Orain ahal dudan ondoen egiten saiatu behar naiz, ondo prestatzen denboraldia. Aurrean ibiltzeko gai naizela erakustea da helburua. Ahal dudan ondoena egitea.

Prestakuntzan ziklo krosak lekurik ba al du?

Aurrekoan Murtziakoarekin hizketan aritu nintzen eta komentatu nion ziklo kros-

rena eta egia esan, ez zion grazia handirik egin. Nire aldetik, nik ez daukat arazorik ziklo krosean aritzeko. Beti egin izan dut. Jende askok utzi egin izan dute, eta nik beti segitu izan dut egiten, nire ustez, ona delako. Eta orain ere pentsamendu berdinarekin segitzen dut. Nire esku baldin balego, nik arazorik gabe egingo nuke, baina ez dago nire esku. Ezezkorik ez zidan esan, baina ez zion grazia handirik egin. Korritu behar baldin badut, karrera asko ez ditut korrituko; herrikoa eta besteren bat.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"

K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

GOKINDEGI GARIONNA

biok kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

LEIAR **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua 7/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Nordia Perez eta Victor Lezama, nikaraguarrak



Ordizian bizi dira Victor semearekin, 2006-tik

Nordia Perez nikaraguarra 2006ko abuztuaren 21ean iritsi zen Gipuzkoara, bere amaren urratsen atzetik. Senarra, Victor Lezama eta semea, urtebeteko Victor, aireportuan agurtu eta hantxe gelditu ziren. Dena den, hiru hilabeterako, elkarrekin zeuden denak, Ordizian.

29 urte dituzte Nordia Perezek eta Victor Lezamak.

Duela bi urte, beraien bizitza aldatuko zuen erabakia hartu zuten: Nordia, bere amak aurretik irekitako bideari segiz, Gipuzkoara etortzea. Baldintza batekin etorri zen Nordia: han edo hemen, baina bi hilabetera berriz elkartuko zela etxeko bere bi gizonekin: Victor senarrarekin eta Victor semearekin. Hiru hilabeterako baldintza beteta zuten. Familiako laugarren kidea, bidean dator gainera.

Elkartu arteko esperientzia dena den, gogorra izan zen Nordiarentzat. Erabakia zergatik hartu zuten galdetu diegu: "gu lizentziatuak gara. Victor, Nazioarteko Merkataritzan eta ni Turismoan eta Ostalaritzan. Inoiz ez zitzaigun burutik pasatu kanpora ateratzea baina nire ama etorri egin zen eta nire herrialdean egoera ez dago hain ondo. Profesional batetik, han gehienez, 500 dolar irabazten ditu. Amak ni-

rekin hitz egiten zuen eta ezberdina zela esaten zigun eta amak pentsatzen zuen, ni hona etorrita nire lanbidean lan egingo nuela", zehaztu du Nordiak.

Haurrari bularra azkenean aldiz hegazkina hartu baino lehen eman zion. "Ez nuen etorri nahi. Baina azkenean etorri egin nintzen", aitortu du.

Etorri eta ez zuen espero zuena aurkitu. "Honek ez dauka han kontaktzen du-

Olagi Urte guztian zabalik
Eguneroko menua Sagardotegia Kartak Sagardotegiko meua
Jatetxea
© 943 88 77 26 ALTZAGA

GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK
San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

tenarekin zerikusirik. Oso ezberdina da. Beste bizimodu bat, beste bizi maila bat. Egun guztia negarrez pasatzen nuen”, onartu du nikaraguarak. “Trudi okerra dauka jendeak Nikaraguan: hau zerua dela uste du jendeak, guk uste genuena ez dugu aurkitu. Baina hau oso gogorra da. Lan asko egin behar da, ez gure herrian bezala. Guri ez digute sinisten hemengo bizimoduaz kontatzen duguna. Zein gogorra den esaten diegu, baina beraiek pentsatzen dute gezurretan ari garela. Nordiaren bi anaia etorri dira, nahiz eta guk esan ez etortzeko. Etorri dira, baina joatekoak dira”, azpimarratu du Victorrek.

Lan aldetik ez zuen arazorik izan. Lehenengotik Lasarteko hotel batean lan egin zuen. Beti ostalaritzan aritu izan da lanean Nordia. Haurdun dago orain, baina Olaberriko Etxe Zurin zain dauzkate. Victorrek, gitarra eskolak ematen ditu.

Familia ondoan

Lan arazorik ez izanagatik, familia ondoan behar zuen Nordiak. “Hona gehienez, emakumezkoak bakarrik etortzen dira, diru pixka bat egin eta zorrak ordainduta bere herrira itzultzeko. Baina nik ez nuen hori nahi, nik nire familia ondoan behar nuen”.

Eta uste baino errazago lortu zuten familia elkar-

Musika odolean

Musika odolean daramate Victor Lezama eta Nordia Perezek. Musikari esker ezagutu ziren. Victorrek gitarra jotzen du eta Nordiak abestu. “Egunen batean, biek elkarrekin osatuko dugu taldea”, diote irriparez. Victor bi taldetan aritzen zen Nikaraguan, eta hemen beste birekin. Zaldibiako Abarlotzekin eta Ordizian sortu duten Luna Ilena taldearekin. Abarlotzekin, Gipuzkoako kantu txapelketan, Nortasunaren saria eskuratu zuten.

Luna Ilena

Goierri koloretsua denaren adibide bat dugu Luna Ilena taldea. Ordiziako Eneko Gonzalek (Izurri taldekoa), Riad aljeriarrak eta Victor nikaraguarak osatzen dute taldea. “Rock latinoa egiten dugu. Euskal Herriko, Nikaraguako eta Aljeriako musikaren nahasketa da. Euskaraz eta gazteleraz kantatzen dugu. Oso polita da”. 20 kantu eginda dauzkate eta diskoa kaleratuko dute laster.



tzea. “Haurrekin pasatzea zaila da baina guk zorzea eduki genuen, eta ez genuen batere arazorik izan. Jendeak erotuta nengoela esaten zidan, hain denbora gutxi neramanean, familia

ekartzea. Baina depresioarekin nengoen, egun guztia negarrez pasatzen nuen... Hilabete bat nahikoa izan nuen hau ezagutzeko, berdin zitzaidan, joatea edo gertatzea, baina nik nire fami-

liarekin egon nahi nuen. Beraiek ezin bazuten etorri, ni itzuliko nintzen. Behin elkarrekin egonda, berdin zitzaigun non egon. Elkarrekin gaude eta horixe da garrantzitsua. Inoiz banandu gabe geunden eta oso-oso gogorra izan zen”.

Esperientzia errepikatu-ko ote luketen galdetu diegu: “berriz jaioko bagina, ez dut uste berriz egingo genukeenik. Orain gauden bezala bai, baina gogorra izan da. Niretzat ez du me-

Berriz jaioko bagina, ez dut uste berriz egingo genukeenik. Orain gauden bezala bai, baina gogorra izan da.



IBAI ONDO
ARROZTEGIA

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



AUZOKI

Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



Nordia Perez eta Victor Lezama:
“Hasierra-basieratik jendeak oso ondo bartu gaitu. Oso jende ona aurkitu dugu”.

rezi Nikaraguan. Profesio bat duena, moldatzen da. Lehen okerragoa zegoen egoera. Baina diru gehiago irabazteko grinak bultzatu gintuen Nikaraguatik ateratzera. Itzultakoan gure etxea erosi eta gure proiektuak aurrera eraman nahi ditugu”.

Victorrek umorez adierazi digunez, “alderantziz eginez gero bai: lehenengo ni etorri eta gero bera, umearekin, hegazkinean parde-lak aldatuz. Biberioia prestatu... luzea izan zen bidaia.

gaineratu du Victorrek. “Dena den, emakume asko ere gaizki ikusten dira, tabernetan edaten, senargai berriekin... Askatasuna asko gustatzen zaie, izan ere, oso herrialde matxistak dira, emakumezkoak baztertuta daude. Hona etortzea, kaiolatik ateratzea da. Askotan ez da emakumearen errua izaten, gizonak Nikaraguan egin izan dionaren ondorioa baizik. Asko sufritzen dute. Berdintasunaren gaian, hemen gauzak hobeto daude”, dio Nordiak.

Amerikako zenbait herrialdeetatik emakumeak ateratzea, kaiolatik ateratzea bezala da. Oso herrialde matxistak dira, emakumezkoak baztertuta daude.

Hegazkin gutzia beteta zertoren eta zortez, gure ondoko aulkia hutsik zegoen. Hantxe jarri nuen”. Dena den, Victorrek onartu du, emakumeek errazagoa daukatela lana bilatzeko. Nordiak, zerbait gaineratu nahi izan du. “Gizonezkoak beldurtiagoak dira, ez dira hain ausartak. Ez lirateke etorriko”. “Lehenengo gizonezkoa etortzen denean, normalean, emazteaz ahaztu egiten da. Hau gaizki dagoela, eta hobe dutela etxean gelditzea esaten diete”,

Goierritar berri gutzietan diegun galderarekin bukatu dugu elkarrizketa. Hemendik 10 urtera nola, non ikusten duzue zuen burua? “Nikaraguan, ahal dela gure etxea eraiki eta han bizi. Dantzalekua egin nahi dut”, dio Victorrek. “Aurreztu eta joan. Gauzak oso gaizki jarriz gero, itzuliko ginateteke”, gaineratu du Nordiak. Turismo arloko ikasketak eginga ditu Nordiak eta aitortu digunez, “leku oso politak daude Nikaraguan, zoragarriak”.



ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
 ☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osiaña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxus:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak


Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

URDANETA KHAF harategia

Kalitate hobea! Prezio berean!



Kalitateko
Haragi
Fidagarria



*Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!*

Urdaneta 25
943 16 15 14
ORDIZIA



**Eguberri zoriontsuak goierritar guztioi
Olaberriko udalaren izenean**


OLABERRIA
goierriko balkoia



Ordizia

Eguberrietako ekintzak

Abenduak 17, asteazkena:

19:00etan: Goiztiri-AEK euskaltegiak antolatutako Gabonetako postal eta idazlan lehiaketako sari banaketa Barrena Kultur Etxean.

Abenduak 18, osteguna:

18:00etan: Jubilatuen egoitzan Eguberrietako jaialdia.
19:00etan: Musika Eskolako ikasleak aterako dira eta Eguberrietako doinu herrikoiak joko dituzte.

Abenduak 19, ostirala:

18:30ean: Garagartza Plazan, Euskadiko XI. Txistorra txapelketa.

Abenduak 21, igandea:

19:00etan: Santa Ana abesbatzaren Eguberri kontzertua elizan.

Abenduak 23, asteartea:

19:00etan: Barrena Kultur Etxean, Kirol-sarien emanaldi-ekitaldia, Ordizia 2008.

**Abenduak 24, asteazkena:
Eguberrietako azoka berezia:**

9:00etan: Kapoi, Antzar eta indioilarren XXII. Erakusketa Beti Alai Pilotalekuan; errezil sagar, fruitu, lehorren erakusketak Garagartza Plazan. Orein, pottoka, asto, bigantxa... erakusketa Beti Alai kanpoan.
18:00etan: Olentzero etorriko da.

Abenduak 25, osteguna:

10:30ean: Diana 'Beti-Argi' musika bandaren eskutik.
13:00etan: Eguberrietako kontzertua 'Beti-Argi' musika bandaren eskutik Plaza Nagusian.

Abenduak 26, ostirala:

18:00etan: Beti Alai pilotalekuan, Eguberrietako 24 orduko IV. Saskibaloitxapelketaren hasiera.

Abenduak 27, larunbata:

16:30etan: Pirritx, Porrotx eta MariMotots pailazoen 'Piratak' ikuskizuna Majori kiroldegian. Antolatzailea: Goierriko Ikastolak-Hazia Elkartea-Urruña.
19:00etan: Beti Alai Pilotalekuan, Eguberrietako 24 orduko IV. Saskibaloitxapelketaren finala.

Abenduak 29, astelehena:

10:30ean hasita, Majori Kiroldegian, Gabonetako V.

Saskibaloitxapelketa, haurren teknifikaziorako eskolen artekoa: Beasaingo BKL, Goierri (Urretxu), Tolosa eta Ordizia KE. **17:00etan:** Finalak.

17:00etan: D'Elikatuzen 'Gabonetako mahaia eta platerak prestatzen' hitzaldia Xabier Martinez sukaldariarekin.

18:00etan: Jubilatuen egoitzan, 'Aiton-amoneta bere biloben eguna'. 'Monda Lironda' pailazoak 'Baietz lortu' lanarekin.

Abenduak 30, asteartea:

11:00etan: D'Elikatuz zentroan, ipuin kontaketa: 'Urdaneta eta espezien mundua'.

18:00etan: Jubilatuen egoitzan, urte bukaerako jaialdia.

19:00etan: Barrena Kultur Etxean, Ana Galdosen 'Villafrancatik Ordiziara historiaz jositako bidea' liburuaren aurkezpena.

Abenduak 31, asteazkena:

17:00etan: XXXII. San Silbestre krosa-Jose Manuel Cabalero VI. memoriale. Nagusien proba 18:30ean hasiko da.

19:30ean: Ohikoa den 'Kattalin' doinua joz, Beti Argi banda eta Laguntasuna errondaila kaleratuko dira.

Urtarrilak 2, ostirala:

11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara: Haur Parkea Beti Alai pilotalekuan.

18:00etan: Herri Antzokian, 'Los blancos no la saben meter' filmaren emanaldia.

Urtarrilak 3, larunbata:

18:00etan: Majorin 'Xurdir-en gabonetako kontzertua', Ordiziako Gimnasia erritmiko taldearekin elkarlanean.

11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara: Haur parkea Plaza Nagusian.

Urtarrilak 4, igandea:

11:00etatik 13:30era 16:30etik 20:00etara: Haur Parkea, Plaza Nagusian.

Urtarrilak 5, astelehena:

16:00etan: Herri Antzokian, filmaren emanaldia haurrentzat. Saio honetan ohiko errege-errosko eta pizzen zozketa egingo da.

19:00etan: Bustuntzatik Erregeen kabalagata abiatuko da eta Plaza Nagusian amaituko. Ekintza hau Parrokiko Katekesiak antolatzen du.

Urtarrilak 6, asteartea:

10:30ean: Ordiziako Txistularien Diana.

11:00etan: Santa Ana abesbatzak lagundutako Meza Nagusia elizan.



Tel. eta Faxe: 943 886 558
 Poltsikoko tel.: 616 698 288
 Zubi-Erreka Industrialdea, 42
 LAZKAO
 toldosagustin.com
 auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK
 J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Lazkao

'Hirugarren mundua ezagutzen'

Abenduaren 20ra bitartean Lazkaon, 'Hirugarren mundua ezagutzen-Beste mundu bat posible da' lemapean, Gabon inguru honetan, ekintza sorta antolatu du aurren ere, Lazkaoko Rwanda taldeak.

Erakusketa

'Afrikako arpegia'. Afrikako zenbait herrialdetako argazki bilduma: Burkina Fasho, Mali, ... Argazkien egilea: Jose Criado Lorenzo eta Mikel Mitxelena Otegi. Kultur etxeko gelan. Ordutegia: astelehenetik larunbatera: arratsaldeko 4,30etatik 8etara; larunbatetan, goizez 12etatik 1,30etar, arratsaldez 6etatik 8etara.

Bidezko merkataritza

Bidezko Merkataritzako produktuen eta eskulanen salmenta. Ordutegia: astelehenetik larunbatera, arratsaldeko 4,30etatik 8etara. Larunbatetan, goizez 12etatik 1,30etara eta arratsaldez 6etatik 8etara.

Film emanaldia

Abenduaren 18an, 19:00etan, Azeria Kultur Gunean, 'Montema Na Ngai', Donostiako Zinemaldian estrenatutako dokumentala. Kongoko Errepublikan hitz egiten den lingala hizkuntzan "Motema na ngai" hitzek "Nire bihotza" esan nahi dute. Hizkera poetikoan maitaleek elkarriz esaten dizkioten hitzak adierazteko erabiltzen da. Eta itzulpen askea eginez gero "Maite zaitut" dela esango genuke, edo "Ene maitea". Dokumentalaren zuzendariari, Juan Miguel Gutierrez, hitz horiek ateratzeko an zaizkio Afrikarekin pentsatzen duen bakoitzean.

Haurrentzako elkartasun ekintzak

Ikastolako haurren elkartasuna ekintzak: abenduaren 15ean, H.H.5 mailako ikasleek 'Txanogorritxu Afrikarra' ipuin kontaketa eskainiko dute. Abenduaren 15ean eta 17an, L.H. 1., 2.3. eta 4. mailako ikasleek Guttun birtuala idatziko dute. Rwadako haur baten bizia eta bere herrialdearen aurkezpena landuko dute.



Ordizia

Pirritx eta Porrotx 'Piratak', abenduaren 27an, Majorin

Goierriko Ikastolek, Urruñako eta Ziburuko ikastolak laguntzeko helburuarekin, Pirritx eta Porrotx pailazoaren saioa antolatu dute. 'Piratak' ikuskizun berria aurkeztuko dute, abenduaren 27an, Ordiziako Majori kiroldegian. Sarrerak 6 eurotan daude salgai, Beasain, Lazkao eta Ordiziako ikastoletan.

Lazkao

Astotxo eguna

Urtarrilak 11, igandea:

10:00etan: Asto diana, plazan.

11:00etan: Meza nagusia, Lazkaoko abesbatzaren partaidetzarekin Zistertarren konbentuan.

12:00etan: Gipuzkoako X. asto erakusketa eta lehiaketa, gudi ibiltariak, salda, txistu emanaldia eta asto hoberena eta ederrena aukeratuko da.

13:00etan: Egiptorako ihesaren kale antzespena. 1652an sortutako festari ematen zaio bizia. Lazkao Txiki zelaian.

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain

943 160 120 (arratsaldez)

www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

IKASKETA TEKNIKAK

INGELERA:

Maila guztiak, PET, First Certificate, mintza praktika

Eskaintza berria: **FRANTSESA**

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO

Tel.: 943 164 846

627 505 687 (instalakuntzak) - 670 471 106 (mantenimendua)



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Mantenimendua
- Telekomunikabideak



Idiazabal

Pop rock lehiaketa

Idiazabalgo Udak III. Pop rock lehiaketa antolatuta aurten ere. Euskal Herri osoko taldeek aurkeztu ahal izango dute txapelketara (2008ko irabazleak ezik). Diskoetxeren batekin kontratua duen taldeak ezin izango du parte hartu pop-rock txapelketan.

Taldeek abenduaren 22 baino lehen eman beharko dute izena eta egun horretarako grabazio edo maketa bat bidali beharko dute posta elektronikoz ala posta arruntez, baita harremanetarako telefonoa ere. Grabazio horretan abesti bakar bat aurkeztea nahikoa izango da eta zuzeneko grabazioak, maketak edo beste mota batekoak ontzat hartuko dira.

Zortzi talde baino gehiago aurkezten badira epaimahaiak alde aurretiko aukeraketa egingo du. Aukeraketaren emaitza urtarrilaren 2. astean jakinaraziko da. Aukeraturako talderen batek ezin badu txapelketan parte hartu, txapelketa eguna baino astebete lehenago jakinarazi beharko dio Idiazabalgo Udalari.

Txapelketak bi sari izango ditu: 1. Epaimahaiak aukeraturako taldeak diska bat grabatzeko aukera izango du. 2. Entzuleek aukeraturako taldeak 2009ko Sanblas jaietan kontzertua eskainiko du Idiazabalen.

Saritua suertatzen den taldeak, abestiren bat SGAEn erregistratua badu, bere gain hartuko ditu horrek eragingo dituen gastuak.

Izena emateko: Telefonoa: 943187100; Helbide elektronikoa: kultura@idiazabal.info; Helbidea: Idiazabalgo Udala, Plaza Nagusia 1, 20213 Idiazabal.

Beasain

Gabonetako ekintzak

Abenduak 24, asteazkena:

08:00etan: Mendi irteera, Aizkorrira, Aizkorri Mendizale Elkartearekin.

12:00etan: Olentzero. Ikastetxeetako ikasleen bilkura herriko kaleetan zehar abestu ondoren. Loinazko San Martin plazan.

Abenduak 25, osteguna:

12:00etan: Udal txistulari bandaren kalejira.

Abenduaren 26tik 30era:

11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30era: Haur Parkea, Antzizar kiroldegian. Abenduak 26, 18:00etan, globoflexia; abenduak 28, 18:00etan, txo-txongilo ikuskizuna; abenduak 30, 18:00etan, txokolat jana.

Abenduak 28, igandea:

21:00etan: Loinatz abesbatzaren eta Barroko taldearen kontzertua, Andre Mari Zeruruaren parrokian.

Abenduak 29 eta 30:

21:00etan: Zine kluba: 'Gau laburra VIII', Usurbe antzokian.

Abenduak 31:

08:00etan: Mendi irteera, Txindokira, Aizkorri Mendizale elkartearekin.

12:00etan: San Silbestre krosa.

Ataun

Ken7-ren kontzertua

Abenduaren 20an, larunbatean, Ken7 taldeak kontzertua emango du herri antzokian, 22:30ean.



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka. 649 RPS. 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✘ Tximini eta ekonomikak
- ✘ Berogailuak
- ✘ Iturgintza
- ✘ Zeramika erakusketa
- ✘ Bainuko altzariak



MIRENTXU

*Gabon
zoriontsuak
denoi!*

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA

GABONETAN:

- JAIOTZAK
- GABONETAKO APAINGARRIAK
- OPARIAK



Kale Nagusia, 1 Nafarroa Etorbidea, 7
 ☎ 943 88 14 57 ☎ 943 88 04 55
BEASAIN



**inprimaketa-sistemen birziklaketa
 inprimaketa-hondakinen kudeaketa
 inkjet, laser/tonerra
 zerbitzu teknikoak**

Andra Mari, 9 behea • 20200 Beasain • 197 Posta kutxa
 Tel.: 943 16 17 16 • 660 14 44 94 www.birzikla.net



Olaberriko Ertzille-Azpi baserriko sendia

1915-16 inguruan ateratako argazkian Olaberriko Ertzille-Azpiko Zubiarrain Esnaola sendia ageri da.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Joxe Agustin, Joxe Bautista, Joxe Andres eta Joxe Migel.

Beheko ilaran: Maria, Juliana, Joakin Mari (aita), Justa, Franziska Inazia (ama) eta Karmen.

Gure helburua,
zure ongizatea.

XVHAI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Kale Nagusia 6, Idiazabal 943 18 74 94
xuhaifisioterapia@gmail.com

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxe: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

SSANGYONG

ARANDIA GARAJEA

Autoen konponketa

LADA

N-1, z/q Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

BARANDIARAN
Zeramikak

ERREF. MAK DISEINUA PROIEKTUA BAINUA HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Goieritik 20 minutura...

Sukaldeak

Etxetresna elektrikoak

Bainugelak

Zeramikak

Horma-armairuak

Beheko suak



LOPETEGI
equipamiento integral de espacios

Uriz kalea, 29
Lakuntza (Nafarroa)
Tel.: 948 57 60 68



www.lopetegi.es





PRIUS



Toyota Prius 22.500 eurotik

EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926

BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es